



ARGIA

Aña-Mari Vergez, arrantzalea

***“Industrialek
tonaka hitz
egiten dute,
guk arrainka”***

30-33. orriak

#2.749 | 2021/10/10 | 3,90 €



***“Irabazi?
la inoiz ez da
irabazten”***

14 | MAIALEN CHOURRAUT



***Migratzaileen
zeharkaldi luzea
Kroaziako mugan***

24 | GIZARTEA



***Gizarteak ez du inoiz
berreskuratuko AHTn
egindako inbertsioa***

37 | EKONOMIA

INPRENTA
Offset eta digitala

**DISEINU
GRAFIKOA**

DISEINU
EDITORIALA

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

*Txikitik eragiten
Komunitatea zaintzen
Bidea eraikitzen
Aurrera!*



**ALDIZKARIAK
ESKU-ORRIAK
KARTELAK
LIBURUAK
EGUTEGIAK
KATALOGOAK
AGENDAK
KOADERNOAK
KARPETAK
LOGOTIPOAK**

www.**antza**.eus

Zirkuitu Ibilbidea 2, 20160
LASARTE-ORIA
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | HUMANITATEAREN
UNE GORENAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | ARKITEKTURA
- 10 | TEKNOLOGIA

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 19 | ASIER BLAS MENDOZA
- 20 | UXUE APAOLAZA
- 21 | IMANOL ALVAREZ
- 21 | CASTILLO SUAREZ
- 22 | KOLDO ALDALUR

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRATIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
IRAI A LEKUE
- 54 | BERANDUEGI



ZALDI ERO

14 | MAIALEN CHOURRAUT

Rio de Janeiro jantzi zuen urrea, brontzea Londresen, eta zilarra Tokion, joan den udan bertan. Luzea da Lasarte-Oriako piraguistaren bateko eta besteko txapelketetako emaitzen zerrenda, baina bada besterik ere. Miel A. Elustondorekin mintzatu da kirolari bizitzaz.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Aukus aliantza berria: Ozeano Barean urak gero eta zakarrago

Pello Zubiria Kamino

24 | NAZIOARTEA

Kroazia, azken muga

Joseba Sanz

30 | EKONOMIA | AÑA-MARI VERGEZ

“Ontzijabe handien eskuetan dira arrantzaren sektoreko egitura guztiak”

Jenofa Berhokoirigoin

34 | INTERNET | EUSKARABILDUA

Kutsadura eta Internet jasangarria, like-tik like-ra

Mikel Eizagirre

37 | EKONOMIA | AHT

Abiadura handia. Ez eraginkorra, injustua eta jasanezina

David Hoyos, Andoni Kortazar eta Gorka Moreno

44 | KULTURA | AZKEN MUGA JAIALDIA

Muga, kulturaren agertoki natural bilakatuta

Jone Alaitz Uriarte

Jabetza

Komunikazio Biziagora
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iraitx Madariaga, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUIKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugun.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Doktrina berria

Irailaren 28 Abortu legezko eta seguruaren aldeko Ekintza Globalaren Eguna izan da. Protestak indar handia izan du Abya Yalako herrialde guztietan. Peru, Kolonbia, Mexiko, Brasil... Gezurra badirudi ere, abortu ez-seguru eta klandestinoak eragindako konplikazioak dira emakumeen heriotza-kausa nagusietakoa kontinenteko zonalde askotan. Baina, zorionez, herri mugimendu indartsuen bulkadaz, pixkanaka gero eta estatu gehiago alde batara utzi behar izan dute XIX. mendean –Europako Eliza Katolikoak agindutako printzipio moralen ondorioz, besteak beste–ezarri zuten doktrina kerratua. Irudia: Txileko Santiagoko protesta, berriki aurrerapauso handia egin dute, hamalau astera arteko haurdunaldien kasuetan, abortua despenalizatzeko.

 ESTEBAN FÉLIX / AP  AXIER LOPEZ





Tubacexeko enpresa batzordeak oniritzia eman dio Jaurlaritzaren proposamenari

ERREDAKZIOA

Urriaren 4an bilera zuen Audio eta Amurrioko lantegietako enpresa batzordeak Eusko Jaurlaritzaren proposamenari onespina eman ala langile guztien bozketa orokorra deitzea erabakitzeko. Lehenengoaren alde egin du. Akordioa sinatuta egon arte, grebari eutsiko diote langileek.

Bilera horren aurreko astean, Tubacexen ordezkariak duten sindikatuen afiliazioaren esku geratu zen Jaurlaritzaren proposamenari oniritzia ematea. ELAk eta CCOOk akordioaren alde egin zuten, Independenteeek bozketa orokorra egitea eskatu zuten eta LAB eta STAT sindikatuek akordioaren aurkako jarrera adierazi zuten.

Bozketa oso estua izan zen: enpresa batzordeko zazpi ordezkariak alde egin zuten eta seik aurka. CCOO sindikatuak, orduan, adierazi zuen alde txiki horrek zalantzak sortu zizkiola eta bozketa orokorra egitearen aldeko jarrera erakutsi zuen.

Azkenean, esan bezala, urriaren 4an bozketa orokorra baztertu eta Eusko Jaurlaritzaren proposamenari baiezkota eman diote.

ELAk eta CCOOk akordioaren alde egin zuten, Independenteeek bozketa orokorra egitea eskatu zuten eta LAB eta STAT sindikatuek akordioaren aurkako jarrera adierazi zuten

PARAGRAFOA

Astebete lehenago, irtenbiderik gabeko kale batean zeudela zirudien -Tubacexeko zuzendaritzaren asmoen aurrean Eusko Jaurlaritzari "amore ematea"

egotzi zioten langileek-, baina zuzendaritzak aldatu egin zuen 129 derrigorrezko kaleratzeen inguruko paragrafoa, eta horrek gatazkaren norabidea aldatu zuen. Enpresa batzordeak azaldu zuenez, zuzendaritzak kendu egin zuen EAEko Justizia Auzitegi Nagusian jarritako helegitea, eta hala, euren ustez onartu du ez zegoela justifikatuta bide judizial horrekin segitzea. Auzitegiaren epai batek bertan behera utzi zituen derrigorrezko kaleratzeak eta akordio honen ondorioz epai horrek dioena errespetatuko luke zuzendaritzak eta Enplegu Erregulazio Espedientea (EEE) atzera botako luke.

BORROKA LUZEA

Otsailean hasi zuten langileek greba mugagabea, eta ordutik tinko aritu dira euren eskubideen alde borrokan. Ezagunak dira burutu dituzten ekintza eta piketeak, eta beraien aurka egin izan du Ertzaintzak, behin baino gehiagotan. ●



INAKI MONTES

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Siesta



ARITZ GALARRAGA

Marie Darrieussecqek dio, insomnioaren kontrako ekinean, probatu dituen gauzen artean –terapia, barbituriko, alkohol– batek funtzionatu izan diola –partzialki bada ere, ez baitu lorik eza erabat gainditu–: siesta. Siesta, bai, kuluxka, lo kolpea. Kontraesana dirudi, lorik eza loarekin konpontzea, baina badago egunean beti orduren bat, zeinean munduak ez duen ezer espero zutaz, zeinean zuk zeuk ere ez duzun ezer espero munduaz, eta zeinean ez dagoen gainera gauean dagoen lo egiteko presiorik. 18:00ak aldera lortzen zuen siesta bat egitea Darrieussecqek, eta horrek salbatu izan du ez gutxitan gaueko insomniotik.

Siesta, garai batean nagikeriarekin, alferkeriarekin lotzen zen praktika, gaur egunean moloi bilakatu dutena, entrena-tzaile pertsonal, modako aldizkari, osasun saioek gomenda-tzeraino, beti ere lan eta lan arteko pausa gisa, eta pixka bat deskantsatu ondoren berriz ere erabat produktibo izateko –eta hartara tentsioa sortzeko lo egiteko zailtasunaren eta deskantsatuta eta produktibo izateko ondo lo egin behar-aren artean–. Miguel Ángel Hernándezek, ordea, dohain baten gisara, bertute baten gisara ulertzen du, *El don de la siesta* izeneko liburuan. Siesta litzateke elipsi bat, eten ez-emankor bat, denbora propio, subiranoaren bilaketa bat. Geure buruari konpainia egiteko denborarena. Plazer txiki bat, zorionaren antzeko gauza batera gerturatuko gintuzkeena. Besterik ez bada, Hannah Arendtek zioenagatik: “pentsatzeko, beharrezkoa baita mundutik apartatzea; eta itzaletan barneratzea”. Dohain bat, beraz, opari bat, aterpe bat, etenaldi bat, zorion une labur bat ekaitzaren erdian. Itzuli beharko ginateke naturak lo egiteko programatu gaituen modura. Erromatarrek *sexta* deitzen zuten horretara, berdin dio eguerdian, eguerdi-ondoan, gosalduta eta gero, edo afalaurrean. Ezer txarrik ezin zaigulako gertatu siesta egiten dugun bitartean. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Pandoraren paperak

Munduko buruzagi eta handiek paradisu fiskaletan ezkutatu dituzten ondasunen filtrazio berria egin du Kazetarien Nazioarteko Partzuergoak. 35 estatuburu eta estatuburu ohi, 330 funtzionario, enpresariak, artistak eta kirolariak daude zerrendan.

ITP

Rolls Roycek 1.700 milioi eurotan saldu dio Zamudioko ITP Aero enpresa AEBetako Bain Capital funtsari, zeinak bazkide dituen Espainiako JB Capital Market funtsa –Botin familiarena– eta Andoaingo SAPA armagintza enpresa –Aperribai familiarena–.

COVID-19

Neurri murriztaileak bertan behera utzi dituzte Nafarroan. Tabernetako barran kontsumitu daiteke, dantzalekuetan dantzatu eta kontzertuetan zutik egon. Lehen Hezkuntzan ez da talde osoa konfinatuko ikasle batek positibo ematen duenean.

Autorik ez, eskerrik asko



ULA IRURETAGOIENA

Urtero bezala, Nazioarteko Mugikortasun Astea ospatu berri da Europako hirigune askotan. Aurretik mugikortasun eredu jasangarria izateko aldarrikapen leloari osasungarri hitza gehitu zaio: “Zure osasunaren alde, autorik gabeko eguna”. Azken urtean nagusitu den etxearen babes-gotorleku mezuen aurrean, kaleak ere zaintzen gaituela gogorarazteko unean gara, berreskuratu beharreko eremua dela. Eta kalea elkarbizitzarako espazio izateko, segurua eta garbia behar du izan ezinbestean. Autorik gabekoa, besteak beste. Horregatik geroz eta oihartzun handiagoa du hirietan “Emisio Baxuko Zonak” sortzeko ideiak, landa eremuetan naturako babesguneak egiten ditugun lez. Hirietako babesgune hauetan ziurtatzen da autoek jaurtitzen duten nitrogeno dioxidoa eta partikula finen presentzia onargarria dela. Literalki, hirietako arnasguneak dira, eta horretarako kutsatzaile handiko autoen presentzia mugatzen da. Emisore kutsatzaileak hirietatik gutxinaka desagertzeko beste hirigintza tresna bat da. Pentsa, aurreikusten ari dira Bartzelonan etorkizuneko Cerdà-ko hiri-traman ibiliko diren autoek ez dutela pertsonarik garraiatuko, kaleak objektuak eta produktuak mugitzeko izango omen direlako.

Mugitzeko askatasuna gizarte aurreratuaren garaipena da; pertsonak eta produktuak –eta birusak– distantzia luzeetara eta denbora laburrean alde batetik bestera eramateko gaitasuna. Horregatik mugitzeko aukera da lurraldearen, ekonomiaren eta elikaduraren ardatz. Eta mugikorkeriak, kutsaduraz gain, diru inbertitze eta espazio handia behar ditu, lurralde zein espazio publikoan. Etorkizuneko mugikortasun ereduak lurraldea autoz hustutzea ikusten badu, autoak liberatuko duen lurralde eta hirietako espazio publikoa herritarrek irabazi beharko lukete; adi egon beharko dugu. ●



Estatuaren arrabola

XABIER LETONA BITERI

Urriaren 20an hamar urte beteko dira ETak borroka armatuaren amaiera iragarri zuenetik. Jonathan Powell bitartekari britainiarrak dio badirela porrota egin duten bake prozesuak, arrakastatsuak eta erdibidekoak. Azken hauetako ei da Euskal Herrikoa, bere ustez.

Zerk ireki zuen aro berria? Orain Gogora Institutuak eta Urkullu lehendakariak adierazi dutenez, euskal gizartearen eta Poliziaren presioak. Eta bai, ez zaie arrazoirik falta, erabakigarriak izan ziren, baina euskal gizartearenak merezi du ñabardura klabea, ETaren amaiera ondo ulertzeko: ezker abertzalearen esparru soziologikoaren presioa –oso aspalditik zetorrena– eta, bereziki, haren esparru politikoarena giltzarri izan ziren. Horien bultzada barik, beti gainbeheran eta gero eta zokoratuago, baina ETak iraun zezakeen hainbat urtez oraindik.

ETaren biolentzia amaitu zen, baina bistan da, “biolentziarik gabe edozertaz hitz egin liteke/dena da posible” mitiko hura hankapean hartu du irabazleak. Espainiako Estatuaren egitura juridiko-errepresiboak indarrean jarraitu du ezker abertzaleak iraganaren bere ikuspegia gizarteari azal ez diezaion. Elkarbizitzaren izenean, baina ezker abertzalea higitzeko helburu garbiarekin, EAJk kemenez dihardu hark “biolentzia injustua izan zela” aitor dezan, sektore politiko horren eta euskal gatazkaren 50 urteko jarduna ETaren biolentziara mugatu guran.

ETA frankismoari emandako erantzun politiko bortitza izan zen, eta ondoren ere izaera politikoarekin jarraitu zuen garatzen, iparra galdu eta bere itsukerian eta estatuak irekitako labirintoan galdu arte. Hori guztia pluraltasunetik interpretatu, ulertu, azaldu eta eztabaidatu baino, interesgarriagoa bide da ezker abertzalearen ikuspegi osoa garailearen arrabolapean hartzea, errealitatea ezkutatu eta etorkizuneko bizikidetzakaltetuz.

Hamarkada honek eman duenaz askotxo islatzen dute, esaterako, ondoko gertaera judizialek, eta gizartearen presioaz baino gehiago diote estatuaren biolentziak: Bateragune auzia, Herrira auzia, Tantz Tantzaren aurkako operazioa, Herriko Tabernen auzia, Altsasuko auzia, 11/13, egunotan egiten ari den 13/13 auzia, hainbat hedabideren itxiera, bitartekarien atxilotetak... Ehunka pertsona auzipetuak eta zigortuak Aieteko Konferentziaren lurreratze pistak irekitako prozesuan.

Eta hala ere, herren baina 2010ean baino askoz hobeto gaude, zalantza barik. Bake nahia gizartearen lehen lerroan zegoen, metatutako sufrimendua handiegia zen. Eman dira urrats interesgarriak, baina merezi zuen abagunea hobeto baliatzea denboran bake ziklo sendoa ireki, eta bizikidetzak eta etorkizuneko arau politikoak adostasun zabalagoaz eraikitzeko. Arrabolaren hautua egin da, aldiz, zauri ugari sendatu barik lagata eta etorkizuneko sumendiak elikatuz. Eta txarrena, ez da beselako mugimendurik sumatzen arrabola jiraka darabiltenen eskuetan. ●



II. Mundu Gerratik hona izandako bizi esperantzaren jaitsiera handiena eragin du pandemiak. 27 herrialdetan, urtebete baino gehiago murriztu da. Koronabirusaz gain, beste faktore batzuek ere eragin dute: pobreak, egiturazko arrazakeriak eta gaixotasun batzuen tratamenduen atzerapenak.

9

preso gehiago Euskal Herriratuko dituztela iragarri dute Espainiako Espetxe Erakundeek. Zehazki, jadanik Euskal Herri inguruko kartzeletara hurbildutako presoak Hego Euskal Herriko lau espetxeetara ekarriko dituzte.

3.000

elizgizon pedofilo inguru Frantziako Estatuan, 1950eko hamarkadatik hona. Eliza Katolikoari loturiko datu lazgarria azaleratu du sexu abusuak ikertzen ari den batzordeak.



“Haurrek eskolako patioan edo ariketa fisikoa egin bitartean musukoa eraman behar izatea neurritz kanpoko eta diskriminatzailea da”

Eskolan musukoari lotutako neurriak malgutzeko eskatu diote Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuari guraso ugari, sinadura bilketa abiatuta. Ipar Euskal Herrian, tasa 50en langatik behera mantentzen bada astebetez, umeez ez dute musukorik beharko Lehen Hezkuntzan.

2021-09-27



**“EUSKARA
DESAGERRARAZTEKO
POLITIKA BORTITZEAN
KOKATU BEHAR DUGU
LAN DEIALDIETAN
EUSKARAREN EZAGUTZARI
AITORTZARIK EZ EGITEA”**

Euskalgintzaren Kontseiluak salatu duenez, Nafarroako Gobernuak zabaldu berri duen 424 erizain lanpostu betetzeko oposizioen deialdian euskararen ezagutzak ez du baliorik izango eremu mistoan eta ez-euskaldunetan.

2021-10-01

TEKNOLOGIA

Aniztasun teknologikoa behar dugu



DIANA FRANCO

Orain dela zenbait urte Margarita Padilla ingeniari informatikoa eta tekno-politikan ikertzaile eta aktibista ezagutu nuen topaketa batzuetan. Padillak "Internet egiten" lan egiten zuela esan zuen bere burua aurkeztean. Egun horretan ez nuen ondo ulertu esan nahi zuena. Internet beste modu batean pentsatu zitekeela, alegia.

Azken egunetan gai berari bueltakari den Yuk Hui informatikari eta filosofo txinatarra ezagutu dut; berak teknologia beste leku eta modu batzuetatik pentsatzearen ideiarri "aniztasun teknologikoa" deitzen dio. Bere hitzetan, etorkizunean aniztasun teknologikoa ez badugu lortzen, gaur dugun aniztasun kulturala eta biologikoa galdu ditzakegu, dugun teknologia homogeinizatzailea den heinean. Yuk Hui-aren arabera, egungo teknologia erabiliena pentsatzen eta egiten dutenek munduko pertsona gutxi batzuk eta munduko toki konkretu batzuetakoak dira. Errealitate horrek, teknologia neutrala ez den neurrian, bizitza eta naturarekiko harremanak beste modu batzuetan ulertzen duten pertsonen ezagutza galtzera eramanez gaitzake.

BIRPENTSATZEN

Donna Harawayren *Arazoarekin jarraitu* liburua datorkit burura. Beste gauza batzuen artean, lan horretan Ursula Levin fikzio idazlearen mundu berriak irudikatzen du grina partekatzen du irakurlearekin, gauzak pentsatzen eta birpentsatzen jarraitu behar dugula.

Bai Huik bai Harawayk uste dute etorkizunean gure planeta pasako dela teknologiak eragindako ingurune naturala izatetik natura eta teknologiak elkarrekin sortutako ingurune izatera. Eta hartuko duen forma gizakiok gainontzeko izaki bizidunekin izan nahi ditugun harremanen arabera izango dela. Harreman horiek nolakoak izatea nahi dugu? ●

NAZIOARTEA

Gobernuz Kanpoko Bortxa

AXIER LOPEZ

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) jakinarazi du bere 21 langilek, gutxienez, sexu-abusuak egin zituztela Kongoko Errepublika Demokratikoan 2018tik 2020ra. Haien lan ofiziala ebolaren pandemiari aurre egitea zen.

Orotara, 83 gizon daude akusatuta eta horien artean UNICEF, Oxfam eta Mugarik Gabeko Medikuen langileak ere badira. OMEk berak enkargatutako talde independente batek baieztatu ditu emakumeen salaketak, 50 testigantza baino gehiago aintzat hartuz. Gehiegikeriak, bederatzi bortxaketa barne, Kongoko zein nazioarteko langileek egin zituzten.

Sexua enplegu truke, bortxaketak, eta estortsioak emakumeak abortatzera behartzeko. Horien atzean daude medikuak, goi-karguak, administratzaileak, garraiolariak... bortxatzaile bihurtutako askotariko "laguntzaileak", diru publikoz edo asmo oneko pertsonen ekarpenez osatutako soldatekin. Nazio Batuek gidatutako misio bakan batean inoiz izandako sexu-abusuen kasurik handiena da.

Txostenaren arabera, 29 emakume haurdun geratu ziren abusuen ondorioz, horietatik 22k umea izan dute eta beste batzuek adierazi dute bortxatzaile "humanitarioek" abor-

tatzera behartu zituztela. Biktimarik gazteenak 13 urte ditu eta haren testigantza arabera, OMEko autogidari batek bera kalean ikusi eta etxera eramateko eskaintza egin zion, baina horren ordez, hotel batera eraman eta han bortxatu egin zuen. OMEko langileek emakumeen prekarietatea baliatu zutela azpimarratu du txostenak, sexu-harremanen truke lanpostuak emanez edo sexua ezinbesteko baldintza bihurtuz enpleguari eusteko. Sexua izateari uko egin ziotenean lana galdu zutela adierazi du zenbait emakumek.

Eredua, biktimak eta borroroak errepikatzen dira, oso luzea den zerrenda are gehiago gizentzeko. Oxfam da azken urteotako eskandalu handienetakoaren protagonista, 2010ean Txaden eta Haitin egindako bortxaketa masiboen harira. Baina, agian, kasurik paradigmatikoa NBEko kasko urdinena da. Haiti, Kongoko, Burundi, Liberia, Timor, Bosnia, Hego Sudan, Kosovo, Afrika Erdiko Errepublikan... indarkeria matxistarekin lotutako 2.000 salaketa baino gehiago bildu dituzte nazioarteko komunitatearen "bake-indarrek".

Laguntza humanitarioaren eta elkartasunaren aterpean ezkutututako negozioak ez du mugarik ezagutzen. Areago, pobrea, beltza eta emakumea diren aurrean. ●

BEHERA



Donostiako zaharren egoitza publiko bateko baldintzak azaleratu dituzte

ELA sindikatuak jarritako salaketa baten harira, ikuskapena egin da Donostiako Txara I egoitzan. Irailaren 17ko data daraman txostenean jasotzen denez, ikuskapena egin zen unean langileen ratio minimoak ez ziren betetzen, eta afalorduaren eta gosalorduaren artean hamalau orduko tartea egin zitekeen.



LOMLOE

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

LOMLOE legearen diseinu berria prest du Espainiako Hezkuntza Ministerioak, eta erkidegoetako gobernuetara iritsi da dagoeneko, kontrastea abiatzeko, baina Madrilek du azken hitza. Hurrengo ikasurte hasieran jarri nahi dituzte martxan aldaketak.

Zein aldaketa dakartza DBHn?

Bigarren hezkuntzako lehenengo eta hirugarren mailen artean, Teknologia eta Digitalizazioa izeneko ikasgaia izango dute gazteek, baita Balore Zibikoak eta Etikoak ere, Lehen Hezkuntzan bosgarren edo seigarren mailan irakatsiko den ikasgaiaren jarraipen gisa. DBHko laugarren mailan, Ekonomia ikasgaiari Ekonomia eta Ekintzailtza izena emango diote, eta hautazko berri bat sartuko da: Prestakuntza eta Orientazio Pertsonala eta Profesionala.

Eta Batxilergoan?

Batxilergoan, gaur egungo hiru adarren orde (Zientziak, Humanitateak eta zientzia sozialak, eta Arteak), bost adar izango dituzte ikasleek aukeran: Zientziak, Humanitateak eta zientzia sozialak, Arte plastikoak, Arte musikal eta eszenikoak, eta Batxilergo orokorra (arloan humanistikoak eta zientifikoak barne hartuko dituen).

Zer gertatuko da filosofiarekin?

Orain arte bigarren hezkuntzan hautazko ikasgai gisa zuen Filosofia Espainiako legeak, eta derrigorrezkoa zen Batxilergoko lehenengo mailan. Orain hautazkoa desagertzen da eta Batxilergoko lehenengo eta bigarren mailan izango da derrigorrezko, baina gogoratu behar dugu ikasle guztiak ez direla Batxilergora iristen.

Zer egin dezate Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak?

Erkidegoko administrazioak hala erabakiko balu, aukera legoke hautazkoen artean Filosofiari lekua egiteko, zirrikituak uzten baititu legeak. Hala, Filosofiako irakasleak biltzen dituen EAEko Agora elkarteak Jaurlaritzari eskatu dio Filosofia ikasgaia blindatzeko DBHn.

Uraren kudeaketa

 URKO APAOLAZA AVILA

Busturialdeko Ur Patzuergoa desegin eta Bilbo Bizkaikoan integratuko da urtarriletik aurrera, eskualdeko hamaika udalerritatik bederatzi hala onartuz gero. Udaletxeetan hasi dira erabakia bozkatzeko, eta Gernikak eta Bermeok baiezkua eman dute jadanik.

Zer suposatuko du aldaketak?

Oposizio taldeen iritziz, Europak agintzen duen ur kudeaketa "jasangarri eta gertukoaren" guztiz kontrako norabidean doa erabakia eta Busturialdeko zerbitzu hori "multinazionalen eskuetan" geratuko da. Integrazioaren alde bozkatu dutenek diote baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela dagoen azpiegitura mantentzeko.

Nola funtzionatzen du Bilbo Bizkaia ur partzuegoak?

Hainbat urtez Busturialdeko Ur Partzuegoaren lehenakari izana eta orain Ea herriko alkate den Iratxe Arriolak (EH Bildu) azaldu duenez "Bilbo Bizkaia partzuegoa paperaren gainean publikoa bada ere, kudeaketa-ereduan enpresa pribatuaren irizpide berberen arabera arautzen da". Azpikontratazio kate baten bidez, uraren kontrola Iberdrola, Acciona, Suez, Aqualia eta antzeko multinazionalen bereganatuko dutela salatu du Arriolak, eta "fakturaren %60" eurentzat izango dela.

Uraren prezioari eragingo dio?

Bermeoko Guzan herri plataformako Xabier Ortuzar zinegotziaren esanetan, 2022an uraren prezioa %5 baino gehiago ez igotzea adostuta dagoen arren, ezin da ziurtatu 2023 urtetik aurrera beste zergarik sortuko ez denik, dela obrak finantzatzeko, dela Urdaibaiko Erreserban klima aldaketak ekarriko lukeen "defizit hidrikoari" aurre egiteko: "Zergatik dago halako interesa ur-azpiegituren beharra sortzeko?"

Alternatibarik badago?

Bermeoko alkateak azaldu duenez, integrazioa egingo ez balitz, tarifak %20-25 igo beharko lirarteke hurrengo urtean, Urdaibaiko saneamenduaren plan integralaren gastuei aurre egiteko. Arriolak dio ez dela egia, Bizkaiko Foru Aldundiaren inbertsioen bidez egin daitezkeela aldaketak.

AUKUS ALIANTZA BERRIA: AUSTRALIA ARMA NUKLEARREZ HORNITURIK, OZEANO BAREAN URAK GERO ETA ZAKARRAGO

Irailaren 16an Scott Morrison, Boris Johnson eta Joe Bidenek aurkeztu zuten AUKUS, Txinak omen dakarren mehatxuari aurre egiteko Australiak, Erresuma Batuak eta AEBek (AU+UK+US) sortu itun militar berria. Agerraldian Australiak jakinarazi zuen bertan behera uzten zuela Frantziari Attack klaseko hamabi Shortfin Barracuda urpeko ontzi erosteko enkargua, horien ordeztuz Virginia klaseko sei edo zortzi urpeko –energia nuklearrez mugituak– enkargatuz AEBei.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Europan asko hitz egin da AUKUSen sortzaileek Frantziari eman dioten muturrekoaz. 31.000 milioi euroko kontratu baten porrota ez da erraz barkatzekoa. Baina hori bezain mingarria da AUKUSetik kanpo utzi izana Frantzia, Ozeano Barean 'brexit'-aren ostean Europar Batasunak daukan potentzia nuklear bakarra.

John Keiger historia irakasle ingelesak definitu duenez, AUKUS sortu dute II. Mundu Gerraz geroztik abian dagoen *Anglosfera* deitu klubaren baitan –AUKU-Sekoak gehi Zeelanda Berria eta Kanada–. “AUKUSeko kideek ziurrenik nahi zuten Frantzia ere barne egotea, zer eskaini asko daukalako diplomazian eta arlo militarrean, itsas armada sendoa urpeko ontzi eta armaz, inteligentzia mailako presentzia eta fisikoa ere bai Ozeano Bare hegoaldean. Fite erreakzionatzeko garaian, ordeza, ziurrenik asko tematuko zen neurri eta erabaki bakoitza definitzeko daukaten joera kulturalan”. Ingalaterran ondo saltzeko moduko interpretazioa dirudi.

AUKUSen oso bestelako ikuspegia eman du Kevin Rudd Australiako lehen ministro ohiak Alemaniako *Der Spiegel*-i emandako elkarrizketan. Australiako gobernuak denbora gutxian 180º-ko itzulua eman baitio bere estrategia militarriari. Rudd, Alderdi Laboristakoa, lehen ministro zela 2009an Australiaren behar estrategikoak definitzeko “Defentsarako libu-

ru zuria” abiarazi zuen. Azken txostenak ondorio nagusien artean proposatu zuen eraikitzea hamabi urpeko ontzi erregai konbentzionalek mugituak; horiekin Australia bihurtuz Asiako Ekialdeko bigarren urpeko ontzidi handienaren jabe.

“Zortzi urteren buruan –dio Ruddek– bat-batean erabaki dute nuklearrez mugitutako urpekoetara aldatzea, gauez eta ezkutuan ezabatu dute “Defentsarako liburua zuria”-ren baldintzak betetzeko Naval Group konpainia frantsesak 2016an irabazitako kontratua. Bat-bateko aldaketa horiek ez dira australiarren izaerakoak, guk ez dugu horrela jokatzeko. Zuk iritzia aldatu eta erabaki baduzu erregai konbentzionaleko ontzien ordeztuz nuklearrezkoak enkargatzea, behartuta zaude Frantziari esatera eskakizunak aldatu egin dituzula eta hura gonbidatzera deialdi berrian. Frantsesak gai baitira nuklearrez mugitutako urpekariak ere eraiki eta mantentzeko”.

Frantziako Naval Groupek hasieran eskaini zituen motore nuklearrez mugitutako *Shortfin Barracuda* urpekoak, baina Australiak gasolinazko motoreen hautua egin zuenez, konpainiak urpekoak baldintza horietara egokitu behar izan zituen, honek berekin zekartzan atzerapen eta guzti. AUKUSen ostikadaren ostean galderak baizik ez dauzka Rudd lehen ministro ohiak: “Australian ez badaukagu industria nuklearrik, nola hornituko ditugu urpeko berriak? (...) Hornikuntza

AEBk egin behar baldin badigu eta gainera AEBetan bertan, horrelako urpeko atomikoak AEBen itsas armadaren unitate soil bat baizik ez ote dira izango, Australiaren armada burujabe eta autonomoaren adar estrategiko izateko ordeztu?”

HIRU EDO SEI TONA URANIO OSO PURU

Nazioarteko goi politikaren analista finenetakoa den *Moon of Alabama*-k galderotatik aurrera jota AUKUS jokaldiaren sakoneko azalpen bat aurreratu du. Australiak gasolinazko motoreen ordeztuz energia atomikoz mugiarazitakoak aukeratu, eskuratuko ditu urpeko isilagoak, abiadura handiagokoak eta erregai bila itzuli beharrik gabe askoz denbora luzeagoz iraungo dutenak. Alabaina, ontziok handiagoak dira eta askoz garestiagoak, %50 karioago. Kai eta azpiegitura berriak eta eskifaien prestaketa askoz sofistikatuagoa beharko dituzte.

Australiak, bestalde, ez dauka industria nuklearrik horiek hornitzeko, beraz, mantenuan ere yankien menpeko egongo dira. Beste ñabardura garrantzitsua, hiru ontzi militar eduki behar direnez bakar bat itsasoan patruilatzen edukitzea –beste biak portuan daudela mantenu lanetan edo birmoldaketan– Australiak hamabi ontzi konbentzionaletatik beti lau prest edukiko zituen, baina, nuklearrez mugitutakoekin zortzitik bizpahiru baizik ezingo ditu atera itsasora.



VIRGINIA KLASeko

urpeko ontzi militar estatubatuarra ur azalean. Arma atomikoen lasterketan beroaldi berria eragingo du Australiak urpeko horien jabe egiteak. Argazkia: AEB-etako armada.

“Dena kontutan hartuta –dio *Moon of Alabama*-k– ez da inondik ikusten zer irabazi duen Australiak. Orduan, zerk eraman du urrats hori ematera? Australia politikoki eta militarki Txinaren aurka jarri izanaren arrazoi bakarra AEBen xantaia da”. Txina da askogatik Australiaren bazkide nagusia salerosketetan eta ez zaio interesatzen harekin haserretzea. Australiarrei ohartarazpena egitera AEBetik duela bi urte John Mearsheimer aholkularia joan omen zen, bideoz jasotako hitzaldi publiko batean: “Zenbait australiarrek pentsa dezake badagoela alternatiba bat, Txinarekin alineatzea. OK, aukeran daukazu, zoazte Txinarekin AEBekin joateko orde. Baina gauza bat esango dizuet horretaz: Txinarekin baldin bazoazte

jakin behar duzue gure etsaiak zarete-la, AEBen etsai izatea erabaki duzue. Segurtasun alorrean sekulako lehia baitago”.

AUKUSen aurkezpenean Joe Bidenek behin eta berririo ahanzten omen zuen Australiako lehen ministroaren izena. Scott Morrison australiarrak ez zeukan ahaztuta Gough Whitlamena, 1975ean AEBk eta Erresuma Batuak estatu kolpea eman zioten lehen ministro laborrista harena. 2020ko Net Hurbil batean kontaktu genuen. “Beraz –dio *Moon of Alabama*-k– hau da saltsa honen laburpena: Australia ez da lerrokatu AEBekin Txinagandik babesteko, bere burua AEBengandik babesteko baizik”. Albiste txarra mundu osoarentzako, *Bulletin of Atomic Scientists* ospetsuan Sébastien

Philippek erakutsi duenez. Ikusi zenbakiak. Camberrak erosiko dituen urpeko atomiko berriak baldin badira uranio oso aberatsez (*Highly Enriched Uranium* HEU) mugitutakoak, 30 urteko lanean kontsumituko dituzte hiru edo sei tona uranio, edo AEBetatik ekarrita edo Australian bertan ekoiztuta –agur arma nuklearren ez ugaltzeko itun guztiak–.

Imajinatu du nolako izerdiak aterako zaizkien Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentziako buruei australiarrek aipatzen dietenean albisteak: hiru edo sei tona uranio HEU. Gogoratzen zer kalapita pizten diren Iranen asmo atomikoekin? Iranek aipatzen du ekoiztea... 25 kilo uranio HEU. Australiak horiek bider 200 eduki eta erabiliko duela sinatu du AUKUSek. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f i

Maialen Chourraut

URREZKO PIRAGUISTA GUREA



38 URTE, AMA, LEHIAKIDE GAZTE ASKO ETXEAN UTZITA... OSO HARRO JOAN NINTZEN TOKIORA



Miguel Indurain esaten dute, baina haren pareko da Maialen Chourraut, joko olinpikoetan urrezko domina bakarka lortu duen besterik ez baita gurean. Rio de Janeiron jantzi zuen urrea. Brontzea, Londresen. Tokion, zilarra, joan den udan bertan. Eta hor dira, berriz, Europako eta Munduko txapelketetan eginak dituen balentrien zerrenda, behiaren karena baino luzeagoa. Urregorritzko Maialen.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Olinpiar Jokoak burutu, eta urtea zuretzat kito zela uste genuen. Ez gara oso adituak...

Oraintxe [irailak 15] da Munduko Kopa, Bratislavan, baina aurten nik ez dut jokatu. Abuztua lasai eman nahi nuen. Bratislavako kanala, berriz, modifikatu egin dute aurten, eta han gutxieneko baldintzan lehiatu ahal izatekotan, bertan beharko nukeen abuztuan hamabost egunez entrenatzen. Tokiotik itzuli eta aste-betera Espainiako txapelketa jokatu zen, gero Bratislavara joan beharko nukeen; ondoren, Munduko Kopa... Tokiotik etorrita ere, bi hilabete denak emanda ibiliko nintzatekeen, eta zazpi egun ere ez nituzkeen izango etxean egoteko.

Gelditzea hobetsi zenuen...

Osasuna zaindu beharra dago, urte asko daramatzat piraguan, eta, bestalde, ziklo olinpikoa oso luzea izan da. Aukeran, aurten, abuztuan oporrak hartzea erabaki nuen, eta alabarekin ikasturtea lasai hastea. Behingoagatik! Izan ere, urtero, gure denboraldi hasiera-amaierak, ikasturtearen amaiera-hasierekin batera datoz, eta ezin izaten dut gozatu alabaz eta etxekoez. Kontziliazioa beti da zaila, etxe guztietan. Aurten, hala ere, ikasturtea alabarekin batera lasai hastea erabaki dut. Eta halaxe.

Ziklo olinpiko luzea diozu. Azkenekoak, bost urte. Baina ez zara

bart arratsean ur bizieta hasia, ezta ziklo olinpikoak betetzen ere. Hantxe zinen 2008ko Jokoetan Beijinen...

Urte asko dira eta, gainera, ez naiz inoiz zeharo gelditu. Hiru aste, doi, haurra izan nuenean. Lesiorik izan dudanean, berdin, gelditu behar izan dut aldi batean edo bestean. Ebakuntza bakoitzak errehabilitazioa dakar. Ez dakit iaz ez ote nintzen pare bat astez-edo gelditu... Baina aurten, bai, gelditu beharra nukan, gogoeta egin, etorkizunari buruz pentsatu, sokari gogor eutsi edo ez... Erabakiak hartzeko garaia dudala, alegia. Gelditu beharra. Bestalde, Tokioko Joko-ondokoa oso gogorra izan da, osasunari ere antzeman diot.



Maialen Chourraut Jurramendi

LASARTE-ORIA, 1983



Atletico San Sebastian taldeko piraguisa, ur bizietako kayak (K1) du modalitatea. Olinpiar Jokoetan urrea bakarka irabazia duen Euskal Herriko lehen emakumea. Rion (2016) egin zuen balentria. Hala ere, zilarrezko eta brontzezko domina bana ere jasoak ditu, Tokion (2020) eta Londresen (2012), eta hainbat koloretako domina, berriz, Europako Txapelketa eta Munduko Kopetan. Inoiz ez zuen usteko hainbeste urte egingo zituela goi mailako lehian. Enpresaritzatza diplomatua da, eta hitz egiten hasten den orduko ohartzen gara haren euskaltzaletasunaz. Maialen Chourrauten izena darama jaioterriko Lasarte-Oriako kiroldegia.

Dominak zama handia duela diote.

Bai. Urrezkoa izan, zilarrezkoa izan, nahiz brontzezkoa, obligazio handiak daude, konpromisoak batarekin eta bestearekin, baina gure obligaziorik lehena, entrenatzea da, hurrengo helburua ahalik eta ondoen prestatzea. Eta hainbeste obligaziok ez dizute uzten behar bezala entrenatzen. Batzuk oso gustura dabilta domina irabazi ondoko konpromiso horietan. Niri, berriz, ez zait askorik gustatzen, nahiago dut 3 urteko alabaren ondoan egon. Zeren, Ane [alaba] izan nuenean, ez nintzen hiru aste haiek baizik gelditu, denak emanda jarraitu nuen, urrezko domina irabazteko ametsaren atzetik, entrenamenduak eskatzen duen exijentziarekin eta alaba izateak dakarren guztia-rekin. Hobetu beharra izaten dut beti, eta horretan ari nintzen, baina, orduan, bertigoa izaten hasi nintzen. Urte osoa bertigoarekin. Hurrengo urtean, saihe-tsa hautsi nuen. Gauza bata bestearen atzetik.

Guk, aldiz, ez dugu horrelakorik ikusten...

Lau urtean behin besterik ez duzue eta piraguismoa ikusten! Kar, kar... Ez da hori bakarrik. Niri lasai entrenatzea gustatzen zait, fokuetatik kanpo. Kirol minoritarioak horixe du ona. Eta, gainera, bestela ezin da, gogor entrenatu behar da, ondo entrenatu, kontzentratu. Lehen, Seu d'Urgellen (Herrialde Katalanak) bizi ginenean, Bartzelonara joan behar nuen ba-koitzean bi ordu eta er-diko bidea nuen autoz; Lleidaraino, berriz, ordu eta hiru laur-den, han trena edo hegazkina hartzeko. Oso lanegun gogorak ziren, eta, biharamu-nean, berriz entrenatu beharra zegoen, pauso bat aurrera eta hiru atze-ra eginez. Horregatik, aurten banekien gelditu beharra neukala, nire osasunaren alde.

Higatzeko handia da.

Bai, eta urteak aurrera doaz, entrenamenduak egin bai, baina ez naiz lehen bezain erraz erreuperatzen. Kontuan hartu behar dut. Bestalde, bertigo episodio hura errepikatzerik ez dut nahi, gorriak ikusi nituen. Eta frenoa ere horretarako dago, ezta?, behar dugu-

nean galgatzeko, eta etorkizunaz go-goeta egiteko, adibidez.

Behin betiko uzteak ere bertigoa emango du, bada, ezta?

Bai! Kar, kar... Urteak daramatzat horixe pentsatzen, "zer egingo dut piraguis-moa utzitakoan?", baina erantzunik ez daukat. 2020ko Jokoen ondoren zer egin ere ez nekien, jarraitu, ez jarraitu. Jokoak baino lehen, dezente entrena-tu nuen beste zenbait neskarekin, eta haiekin entrenatzen konturatu nintzen artean ere piraguismoari eman egiten niola, bai entrenatzen eta bai lehiatzen ere, eta neska haiek ere gogotsu joaten zirela nirekin batera entrenatzera, asko ikasten zutela, es-kerrak ematen zizkidatela. "Eskerrak zuek niri? Ni neure interesagatik ere ari naiz eta, gainera, zuek ere gauza asko ematen dizkidazue". Baina hori 2019an izan zen, Jokoen aurretik.

Baina Olinpiar Jokoetan urtebete atzeratu ziren. Aurten jokatu dira.

Bai, eta Jokoen aurretik ere, kezka bera, gero zer egingo ote nuen, jarraitu, ez jarraitu. Gaur bertan irten dira Bratisla-vako Mundialera nire entrenatzaile eta senar Xabier Etxaniz, eta ekipokoak, [Pau Etxaniz] semea, Miren Lazkano, Olatz Arregi... eta inbidia eman didate! Pozik nago inbidia sentitu dudalako. Horrek esan nahi du oraindik hor dela Maialen, gehiago emateko aukadala.

Uste nuen, Jokoa eta gero, bi hi-labeteko gogoetaldia behar-ko nuela, baina uste dut eginga dudala gogoeta hori. Eta, hala ere, denbora behar dut gustuko gauzak egi-teko, entrenamendu eta lehia dinamika-tik ateratzeko, baina barrua bizirik daukat oraindik.

“Irabazi? Ia inoiz ez da irabazten, hortik hasi beharra dago! Gehiagotan hartzen da zartakoa, saria jaso baino. Hargatik ematen digu sariak eromen zera hori”

Dominak neke eta min guztiak berdintzen ditu?

Berdin... Piragua gainean ibili eta gozatzeak berdintzen ditu denak! Do-mina, lanaren saria da. Entrenatzean, hainbat momentu ez dira errazak ez atseginak, eta dominak, berriz, mo-mentu ez atsegin horiek saritzen ditu. Bestelakoan, piraguan ibiltzen goza-tzen dut, horixe izan dut pasioa beti-danik. Urteak igaro ahala, lehen hobby hutsa zena lan kutsua hartzen hasi



da, eta horrexek ematen dit pena, orain hobby eta lanaren artean baitago piragua. Entrenamendu asko lana zaizkit, ez naute lehen bezainbat asetzen, baina nahitaezkoak dira lehiaketara joan eta lan ona egin nahi izatekotan. Entrenatzeak hobekuntza du helburu, halako lehia-egun jakinean azkar eta ondo ibiltzea.

Goiko mailan ari zareten guztiek ere horixe pentsatzen duzue, baina bakan dira dominadunak. Xehetasunek erabakitzen dute lehia.

Bai, are gehiago gure kasuan. Ur bizietan ibili behar izaten dugu, ur hori sekula ere ez da ziklikoa, ez da errepikakorra, fluktuazio ikaragarria dauka, jartzen dizkiguten zirkuitu eta maniobrak guztiz exijenteak dira eta, gainera, lehia-egunera arte ez dugu aginduko diguten maniobraren berririk. Azterketa bat bezala da, ez dakigu zein galdera egingo diguten. Akats gutxiena egiten duenak irabazten du lehia. Beti da akatsen bat, txikiena bada ere. Badira sekulako maila duten piraguitak, ia beti goian daudenak, baina munduan hiru dira horiek. Hiru, mundu osoan. Horiekin batera, badira beste zortzi, goian egon nahi dutenak, batzuetan goraxeago daudenak, beste batzuetan beheraxeago, baina zortzi onenen artean beti.

Onen-onenen artean zaitugu zu.

Momentu honetan bai. Borroka horretan nago, eta borroka horretan egoteak harro sentiarazten nau, borroka horretan egoteak eta, are, bertan jarraitzeak. Goian egotea ez da batere erraza. Gauza ondo ateratzen denean oso erraza ematen du, baina ondo ateratzen ez denean konturatzten zara zein zail den hor egoteak eta bertan irauteak.

Domina zerrenda handia duzu Olinpiar Jokoetan eta bateko Europako eta besteko Munduko Txapelketetan. Zer gertatzen da irabazten ez denean?

Irabazi? Ia inoiz ez da irabazten, hortik hasi beharra dago! Gehiagotan hartzen da zartakoa, saria jaso baino. Hargatik ematen digu sariak eromen zera hori. Gauzak ondo ateratzen ez direnean, niri, behintzat, burua denak emanda hasten zait, egin dudana berrikusten, zer gertatu den, zergatik, pentsatzen, arrazoiak bilatzen. Gogoeta horrek lana zein norabidetan egin behar duzun erakusten du, edo arrastoak ematen dizkizu, oso arrasto baliagarriak etorkizunerako. Lehiaketa txarrek gauza on asko ematen dituzte.

Lehiaketa txarrek... Beijineko Jokoetan ia lehiatik kanpo gelditu zinen.



HELBURUA I

“2009tik 2016ra bitartean, sailkatze proba ia guztiak irabazi nituen, Munduko Txapelketa eta Olinpiar Jokoetakoak. Hori ikaragarria da. Hargatik, 2016ko jokoetan, oso argi genekien garrantzitsua ez zela sailkatze frogak irabaztea, finala irabaztea baizik. Finalera iristea zen helburua, sailkatze froga gainditzea. Eta horrelaxe atera zen gauza. Sailkatzea ozta-ozta gainditu nuen, baina gainditu! Xabi [entrenatzailea] nerbioak jota zegoen...”.

HELBURUA II

“...Nik lasai egoteko esaten nion, sailkatzea zela helburua, ez emaitza onik egitea. Finalerdia ondo egin nuen, eta finala, berriz, izugarrizkoa. Hala ere, finala, jaitziera egiten ari nintzela, urrea alde egiten ari zitzaidala pentsatu nuen momentu batean. Baina behera iritsi eta sekulako denbora egin nuela ikusi nuen. Ez zen munduko jaitzierarik onena, baina neuk egin nuen akatsik gutxiena. Parte hartzaileak hor ziren, artean, baina nik banekien urrea irabazi nuela”.

HELBURUA III

“Beijin, Londres, Rio eta Tokioko joko olinpikoetan parte hartu dut, bai. Oso lehia emozionalak dira jokoak, emozioak indar handia du, eta irteeran egotea ez da batere erraza, presio handia jasotzen dugu batetik eta bestetik, eta horrek ikaragarri zailtzen du gure onena ehuneko ehun ematea. Eta, betikoa: akats gutxiena egiten duenak irabazten du. Horixe dago gakoa, akats gutxiena egiten”.

Eta horrek sua piztu zidan barruan. Ez ninduen bakean utzi. Egun haren hurrengoan, gogor itzuli nintzen entrenamendura, aurreko eguneko lan txarra motibazio estra bat gertatu zitzaidan, hobeto egiteko eta, adibidez, ondoko urtean etxean genuen Munduko Txapelketa, eta banekien neu izango nintzela kanal hartan ordu gehien entrenatuko zuena, alde handiarekin gainera! Modu obsesiboan prestatzen ditut hitzordu garrantzizkoenak, eta halaxe prestatu nuen hura, banekien mundial hura niretzat izango zela, eta lehen ez, baina bigarren egin nuen: sailkapen froga irabazi nuen, finalerdia irabazi nuen, baina finala jokatu eta bigarren! Sekulako emaitza niretzat. Hortxe hasi nintzen podioak zapaltzen. Londre-
sera iritsi nintzenen, munduko rankingean bigarren nintzen, banekien Jokoak irabaztera joan behar nuela. Irabazteko aukera duzula jakitea oso polita da, ilusioa ematen dizu.

Irabazteko aukera zenuela joan zinen Tokiora...

Baina banekien ez nintzela zirkuituko azkarrena. Ziklo olinpikoan zehar Jessica Fox eta Ricarda Funk izan dira azkarrenak, baina horrek ez zuen esan nahi Olinpiar Jokoetako finalaren egunean ere azkarrenak izango zirela. Horixe zen gure estrategia, Xabirena eta biona. Nik neure saiorik onena egitea zen helburua, nire jaitsieran ardaztea, Jessica eta Ricarda alde batera utzita, urte askoan nire obsesioak izan direlako, biak ere oso-oso azkarrak direlako, eta haiek bezain azkar ibiltzea gustatuko litzaidakeelako. Baina



ez nuen lortzen. Hala ere, finalerara iristea lortu nuen, eta nazioartean finalerara iristea ez da batere erraza; are gutxiago, Jokoetan. Finalean, berriz, nire lana ondo bete nuen eta, azkenean, zilarrezko domina hartu eta etxera!

Erraz esan duzu, "domina hartu eta etxera". Minutu eta erdi tentsioz betetakoa da zuen jatsiera.

Intentsitate handikoa da, bai. Ez dakit 24, 25 ate zeuden. Lehenengo ateak ez zuen aparteko zailtasunik, ezta azkenak ere, baina gainerako guztiak ikaragarri zailak ziren, piragua zuzen eduki behar zen denbora guztian, zuzen egin behar zen bultza, gorputzak oso egonkor egon behar zuen... ez zen batere zirkuitu erraza. Bestalde, egun hartan bazitekeela tifoia izatea esan zuten. Zenbait kiroletan bertan behera utzi zuten lehia, baina gurean ez. Goizean, pentsatu nuena: "Nahia-go nuke tifoia izango balitz, haizeak gogor joko balu, zailtasunak areagotuko balira. Horrek Jessica [Fox] eta Ricardarekin [Funk] berdintzera eramango gintuzke".

Baina tifoirik ez zen izan, goizean euria egin zuen, askorik ez, baina tenperatura freskatzeko baliotzat izan zuen, behintzat. Eguerdian bero egin zuen, baina, tira, gauza ondo ateratzen zen.

Ikuslerik gabe jardun duzue, pandemia tarteko.

Bagenekien ez zela ikuslerik izango, baina, behintzat, Jokoak egin dira. Egoera ez da eroso izan inorentzat. Gutxiena, gaixorik egon direnentzat. Japoniarentzat ere ez da erraza izan.

Ikuslerik ez da izan, baina nik besterik pentsatu dut: "A ze poza, Jokoetan gaude, azkenean!". Ez nuen energiari gastatu ikusleak izango ziren, ez ziren izango, pentsatzen. Asko gozatu dut. Behingoagatik, lasai iritsi nintzen, bertan egoteaz harro, horraino egindako bidez harro, eta hori sentipen berria zen nire kasuan. Rion urrezko domina irabazi nuen, eta oso pozik nengoen, baina hurrengo egunean iragana zen hura. Besterik nuen buruan.

Iragana orainaldi egin duzu Tokion.

Ni batez ere pozik nengoen, eta harro, egindako bidez: dominen borrokan egotea ez da erraza, eta beti borroka horretan egotea, oraindik zailago. Finaleraren egotea ere asko da. Harro nengoen, 38 urte, ama, lehiakide gazte asko etxean utzita... oso harro joan nintzen Tokiora, Jokoak inoiz baino gehiago gozatu ditut, ez nekien beste Jokorik biziko nuen, haietarako bidea ez baita erraza. Niretzat oso bereziak izan dira Tokioko Jokoak... ●

2. KANPORAKETA

IGORRE

Urriaren 9an, zapatua,
17:00etan, Lasarte aretoan

Ander Ucelay Aristi, Garazi Navarro Ugarteburu,
Gorka Pagonabarraga Agorria, Ibai Amillategi Omaetxebarria,
Julen Arzanegi Erezuma eta Mikel Goiriena Larrazabal.

www.bertsosale.eus/bizkaikotxapelketa

www.bertsosarrerak.eus

BIZKAIKO

BERTSOLARI

TXAPELKETA

2021



Iritziak

Errusian autoritarismoa indartuz doa



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

2020an Errusiako sistema politikoak trantsizio bat hasi zuen lehen ministroa aldatuz eta erregimena erreformatuz. Sobietar Batasuna erori osteko etapa itxi eta berri bat irekiko da. Ez dakigu oso ondo nola bukatu den trantsizioa, baina abian da eta Vladimir Putinek eta Errusia Batuak garbi dute diseinua eta garapena erabat kontrolpean izan nahi dutela, ez daude prest arauak eta lehia-esparrua inorekin negoziatu eta partekatzeko.

Errusian hauteskundeek izaera plebisitarioa dute, hau da, botere politikoak bere jarduerarekiko babesa neurtzeko baino ez dute balio. Baina, funtzio hau desagertze bidean da. Inkestek eta kale-giroak garbi adierazten zuten gobernuaren politiketikiko atsekabeak nabarmen egin zuela gora, besteak beste, nekezia sumatzen zelako azken urteetako atzerakada ekonomiko leun baina iraunkorragatik.

Halere, 2021eko Dumarako hauteskundeen emaitzak Errusia Batuaren historiako hirugarren emaitzarik hoberenak izan dira, %49,8ko babesa eskuratuz, eta bigarren hoberenak eserlekuei begiratuta, 450 diputatuetatik 324 lortuz. Iruzur salaketak ugaltu egin dira, bereziki Moskun, boto elektronikoa erabilera kaotikoak emaitzetan eragin dituen aldetengatik gobernuko alderdiaren mesedetan. Kaltetu nagusia Alderdi Komunista izan da, igoera handiena izan duen alderdia den arren,

Komunistak kalera atera dira ustezko iruzurra salatzerantz, baina protestak handituz joan diren heinean, alderdiaren buruzagitzak pauso bat atzera eman du

bere espektatibetatik urrun geratu da emaitzetan, bereziki eserleku kopuruari dagokionean. Komunistak kalera atera dira ustezko iruzurra salatzerantz, baina protestak handituz joan diren heinean, alderdiaren buruzagitzak pauso bat atzera eman du gobernuarekin duen gatazkaren tentsioa ez handitze alderantz. Erabakiak komunistak erdibitu ditu, Moskukoek protestan jarraitzea erabaki dutelako.

Putinek, 1990eko hamarkadako anabaren ondoren, estatuaren egiturak berregin zituen eta garapen ekonomikoa ekarri zien errusiarrei. Baina 20 urteren ostean urrun geratzen dira Boris Jeltsin presidente ohiaren garai latzak, are gehiago herritar askok ez zituztenean bizitu. Horregatik, erregimen politikoa- ren legitimazio urradura handituz doa bi fronte desberdinetatik: alde batetik, egoera ekonomikoagatik eta erreforma


neoliberalengatik sufritzen ari diren klase apalenetatik; eta, bestaldetik, hirietako klase ertain liberaletatik. Bakoitzak agenda oso desberdinak ditu, eta horrek zaildu egiten du Kremlinak eman dezakeen erantzuna atsekabea baretzeko. Izan ere, bi sektore horiek duten puntu komun bakarra da Putinek ordezkatzeko duen boterea kentzeko gogoia. Gauzak horrela, Errusia Batuak hartu duen bidea da erregimena itxi eta autoritarismoan sakontzea. Honek, ezinbestean, oposizioen arteko elkarlan hasiberria sakonduko du.

Oposizioek ez du lan erraza. Kremlinak indartu egingo du atzerriko mehatxua- ren argudioa autoritarismoa sendotu eta oposizioa kanpo interesen zerbitzura dagoela salatzeko. Horrelako jarre- rak ohikoak bilakatu dira Mendebaldeko herrialdeetan, nahiz eta atzerriko esku hartzeak eta erasoak oso txikiak izan. Gurean gauzak horrela badira, pentsa Kremlinak nola erabili dezakeen argudio hau Errusiak pairatzen dituen esku hartze amaigabe eta eraso bortitzekin. Moskuren gaineko Mendebaldearen presioak herrialdearen ekonomia eta gobernuaren legitimazioa higitzen du, baina aldi berean, gobernuaren autoritarismo- ra joera berrindartuaren arma nagusia bilakatzen da. Bitartean, Jeltsinek garai batean eta Putinek orain, alternatiba bakarra dute oraingoz: Alderdi Komunista, nahiz eta hedabide askok ezkutatu nahi izan duten. ●

Bakoitzarena



UXUE APAOLAZA



PAULA ESTÉVEZ

Askok izan dugu aborturen bat, nahita batzuk, nahigabe beste batzuk. Nirea azken horietakoa izan zen, haurdunaldiak hiru hilabete egin zituenean. Konsultan ez zen hitza aipatu. Berehala pasa nintzen hirugarren pertsonara, niretzat ez zen errepresentazio baten ikusle ulerkor. Bene-benetan ulertzen dut hasieran hala behar zuela, askorentzat berri lazgarria da, eta heriotza baten berri eman balute bezala jokatzen zuten. Tonua ez zen arindu handik aterata ere. Eta ni oso lasai nengoen: “Ez da larria, eskerrak”, pentsatzen nuen. Bi pastilla, mina, baina mugatua, eta kito. Umea edukitzeko prozesuan pauso bat gehiago. Ez hain ingurukoek dolumin mezuak bidali zizkidaten, ingurukoak adi ibili ziren nire lasaitasuna ukazio faseren bat ote zen. Amak eta ahizpak gaur eta eguna pasa zuten nirekin, eta min-momentua kenduta (eta motza izan zen, behar zen guztia irentsi nuen hala izan zedin), nire bizitzako une zoriontsuetako bat bilakatu zuten, ondo pasa baikeuen elkarrekin. Alegia, doako abortu seguru bat oso gauza lasaia izan daiteke. Baita aukeratua denean ere.

Berriki, gaiaz berriketan aritu ondoren, lagun batek *Abortos felices* fanzinea oparitu zidan. Egileak, Elisabeth Falomirrek, aukeratutako abortuak pozgarriak,

kulpa-sentimendurik gabeak, are ospatzekoak izan daitezkeela aldarrikatzen du. Eta testuak gorputza alaitu zidan. Egia da abortuak dibertimendu bat ez izateko arrazoi asko daudela, abortua oztopo-segida askotan dramatikoa bilakatzen dutenak. Hainbat lekutan legez kanpokoa izateak milaka emakume hiltzen ditu edo uzten ditu ondorio atzerazinekin. Titularrek abortuaz kontatu diguten azkenekotako gauza izan da abortua legezkoa den Madrilen emakume batek ezin izan duela ospitale publiko batean abortatu. Hori egiten duten klinika batera bideratu zuten. Eta kontakizunaren berri izan dugu emakumeak etsi ez duelako, norbaitek entzun dion arte. Eta horrez gain, abortu hori terapeutikoa zelako. Amaren bizitza zegoen jokoan. “Nire lanbidea dena izanik, lan-kide batzuek hari batzuei tira, eta eba-kuntza arratsalde hartan bertan egin ziezadaten lortu zuten. Baina osasun-arloan lan egiten ez duten emakumeak? Ba etxera joan, eta bizpahiru egunez egongo zara zain, odolusten eta zangoak estu, fetua oraindik bizirik edo hilik dagoen jakin gabe” dio protagonistak. Batek titularra lortzen duenetan gertatu ohi denez, baten kontakizuna beste milaka emakumerena dela azaleratu da. Titularra lortu ez duten hamaikarena. Ez

dirudi abortuari bide publikotik ekiten diotenek hori egingo dioten lekura iristeko ibili beharrekoa festa baten atariko denik; zortea baldin baduzu, txarra, klinikaren aurrean iraindu egingo zaituzte, edo beldurgarriago, otoitz egingo dizute; otoitzak botako dizkizute.

Eta horren erdian, garrantzitsua iruditzen zait norbaitek gogoraztea abortua, berez, alaia ere izan daitekeela: horretarako zenbait baldintza (esku-bide) bermatu behar dira. Lekukotza bakoitzak erakusten digu, gainera, abortuaren aurrean jokaerak fintzen. Falomirrena irakurtzen ezin nuen gogotik atera 2014ko azal hura: “Nik ere abortatu egin dut”. Maite Asensio Lozanok hamar emakume (María Jesús Berrotaran, Idoia Eizmendi, Mari Luz Esteban, Gema Lasarte, Monika Sojo Plazaola, Sorkun Rubio, Ana Etxarte, Alaitz Tresserras, Hegoa Ugalde eta Ekiñe Zurutuza) beren abortuez hizketan jarri, eta *Berria* egunkarian argitaratu zuen haien kontakizuna. Ez du zertan pozgarria izan, alaia... baina izan dadila emakume bakoitzaren berezitasunen arabera, ez abortatu ahal izateko ibili behar izan dituen zailtasunen, horien ondorioen eta abiapuntua dena izanik ere beti kulpak iristen diren diskurtsoen arabera. Izan dadila, behintzat, gurea. ●



IMANOL ALVAREZ
IRAKASLE OHIA

Gure beldurra, haien indarra

45 urte bete dira lagun bat eta biok lehen euskal LGBTI+ elkartearen zena sortzeari ekin genionetik. Hortaz, espero izatekoa zen nik gehienbat sexu-askapenaren inguruko artikuluxkak idaztea orri hauetan. Ez da horrela izan.

Gay naiz, nolabait esatearren. Anitza, ere bai. Askotarikoak dira nire nortasunaren ezaugarriak eta hamaika kezkatzen nauten gaiak. Hori dela eta, hainbat kontuz azaldu izan dut iritzia. Oraingoan, baina, gertatzen ari denaz zerbait esateko beharra sentitu dut. Ezer luze-sakonik ez, besteak beste, paper hone-tan leku nahikorik ere ez neukakeelako; garaiotan Euskal Herrian eta inguruan LGBTI+ jendea jasaten ari garen erasoez hausnarketa xumea baino ez.

Frankismoaren amaiera ezagutu nuen. Homofobia zen nagusi, hitza oraindik asmatu gabe egon arren. Erasok ere egon bazeuden, batez ere begirada edota irain motakoak; eraso fisikorik, apenas. Gizartea aldatuz joan da, gure lanari esker hein batean: ehunka hitzaldi, ikastaro, elkarrizketa, bilera, agerraldi... Gurean, jendea ohitu egin da askotariko afektibotasun erak bizitzera. Edo ikustera bederen. Legeak, oro har, egokituz joan dira... Noizbehinka lagunaren batek gelditu ere egiten nau kalean egin duguna eskertzeko. Bazirudien ondo samar

geundela; bide onean gindoazela, alegia, egunen batean homofobia erabat gainditu ahal izateko. Edo ia.

Zer gertatzen ari da, orduan? Orain zenbait urte, erasoaren gorakada txikia nabarituta, esan genuen gurea baino are matxistagoak eta homofoboagoak diren herrialdeetatik etorria zen jendea izan zitekeela kausetako bat, eta hor erronka genuela. Kontu handiz esan ere, gaizki ulertzeak saiheste aldera, guri kolorea gustatzen baitzaigu eta kultura-aniztasuna aberasgarria dela baitakigu.

Esan genuen, era berean, euren bu-ruak gero eta gutxiengo txikiagoan ikusten zituzten homofobo-matxisten amorruzko erreakzio bortitza izan zitezkeela erasook.

Edozelan ere, kopurua eta larritasuna izugarri emendatu dira azken boladan, oso kezkatzeko modukoak izate-raino. Zer egin?

Ez daukat errezeta magikorik, baina bai gauza pare bat argi: egoeraren diagnostiko sakon eta serioa gauzatu behar dela lehenbailehen (horretan, dauden behatokiak oso lagungarri izan daitezke, Gasteizeko kasu) eta ez dugula kikildu behar. Are kontrakoa, gorroto mezu eta erasoaren aurrean, ikusgaitasuna areagotu behar dugu, bai eta gogoan eduki beti gure beldurra dela haien indarra. ●



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Maitasun ekintza bat

María do Cebreiro galiziar poeta-ri irakurri diot berriki idazleen artean ezinezkoa dela lagunak izatea, lagun bakarrak hildakoak direla, eta behar bada bai, nago ingurura eten-gabe begiratzeko dugun joera horrek egiten gaituela sentiberago ingurukoak akatsak, mespretxuak eta gabeziak ikus-teko. Nik egia esan, literaturari lotuta bizi izan ditut nire bizitzako nahigabe-rik handienak, edo, arrenkurarik luzeenak, hobeki esan. Nolanahi ere, Cebreirok salbuespenak badirela esaten du, eta zerrendatzen ditu bere bizitzan era

batera edo bestera presente izan diren beste idazle batzuk, aholku onak eman dizkietenak, edo baieztapen gogoangarriak, betiko gogoan iltzatuta geratzen zaizkigun horietakoak. Areago, esaten du idazten duen bezala idazten duela, hain zuzen ere, irakurri dituen liburuen-gatik eta batik bat liburu horien idaz-leekin izan dituen topaketengatik. Bere hitzetan, lagunekin ditugun harremanak, eta oro har maitetasunak, historia kristalizatzeko modu bat dira. Idaztea maitasun ekintza bat da beretako. Eta eskola. ●

Mohamed



KOLDO ALDALUR
KAZETARIA

Uste dut 2009ko udara partea izango zela Mohamedekin lehen berriketaldi luzea izan nuenean. Denda jarri berri zuten gure etxe inguruan eta bertara jo nuen zer eskaintzen zuten ikustera. Hasieratik iruditu zitzaidan pertsona interesgarria.

- *Oye, tu entiendes presidente Alemania no sabe alemán?* –bota zidan kolpetik. Aztarnarik ez nion hartu galderaren atzetik ezkututzen zenari...–.

- *Presidente País Vasco no sabe euskara.*

Patxi López lehendakaria izan zen garaia ziren eta, egia da, garai hartan euskal herritar hainbaten lehendakariak ez zuen euskaraz egiten (gero ikasi ote zuen beste artikulu baterako, akaso).

Hasiera hartan galdera gehiago zuen egiteko Mohamedek bereak kontatzeko gogo baina, eta berriketaldi luzeak etorri ziren segidan. Besteak beste, Euskal Herriak aske izateko beharraz aritu ginen, nazio kontzeptuaz, borroka armatuaren sorreraz, onarpenaz, biktimak mailakatzeaz, errepresioaz, erakundeek botere ekonomikoekin duten harremanaz, komunikabideek duten arduraz boterea lasai bizi dadin, euskal kulturaz (horrela, zabalean), eta gehienbat, errelatoaz: komunitate txiki honetan

Galdera denak ez dira
izan erantzun errazak
eta berez ditudan
kontraesanak eta
ezjakintasuna ere sarri
azaldu dira

hainbeste min sortu duen konfliktoaz atzetik datozenek zer eta nola jakingo ote duten.

Mohamedek galderaz bete ditu geroztik gure berriketaldiak eta bere jakin-nahiak ez du mugarik. Galdera denak ez dira izan erantzun errazak eta berez ditudan kontraesanak eta ezjakintasuna ere sarri azaldu dira esaldi eta esaldi artean. Baina, tira, gustura aritu naiz nire mugetatik at atera nauen arte.

- *Y, tu qué sabes conflicto Rif y Gobierno Marruecos? Sabes historia Rif? Sabes batalla de Annual? Sabes Nasser Zafzafi preso politico? Movimiento Hirak, sabes? Protestas Alhucemas?*


Akabo gure etxeko belarrak! Halako ederki ari nintzen pontifikatzeko dudan

joera gozatuz, eta derrepente, zer erantzun ez dakidala geratu naiz. Annualeko borroka orain mende bat izan zela eta rifekoek espainiar kolonizatzailak egurtu zituztela, besterik ez dakit. A! eta itxuraz, interes geoestrategiko partekatua dituztelako, egurtuak izan ziren espainiar haien oraingo ordezkari politikoek harreman nahiko onak dituztela rifeko herritarren eskubideak zapaltzen jarraitzen duen errege marokoarrarekin. Horixe baino ez.

Gure herrian, Azpeitian, udalak kartel handiak jarri ditu kaleetan Kultur Mahaiak egindako lana gogoratzeko. Badakizue, kontzertuak, erakusketak, bertsolariak, trikitilariak, antzerki emakundak eta abar. Kulturaren ikuspegitik aberasten gaituzten ekitaldiak, alegia. Kultura, ni baino argiago beharko du norbaitek zer den zehazteko.

Orain hurrena, elkarrekin izan gara berriro Mohamed eta biok. Galdetu dit ea zergatik pentsatzen dugun pertsona "kultoa" dela, adibidez, alemanez eta ingelesez hitz egiten entzuten duguna, eta, era berean, ez garen ohartzen gurean asko garesti euskaraz eta erdaraz aritzen garenok.

A! Eta gainera, euskaraz hasi zait galderak egiten. ●



MANDAMENTU HIPERMODERNOAK


EGUNGO INERTZIAK ZALANTZAN JARTZEN

Iñigo Martínez Peña

ezta baida

elkar

www.elkarargitaletxea.eus



“Ze ona!”

**Zu ere harrituko zara, edo ez.
Poztu, edo haserretu. Baina ziur
baduzula interesa eta zeresana.
Jakin-mina eta irizpidea duzulako.
Giroan zabiltzalako.**

berria

zuk badakizulako

KROAZIA AZKEN MUGA

Nazionalitate askotako pertsonak Balkanak zeharkatzen dituzte Europar Batasunera heltzeko. Ohiko bihurtu den ibilbidea da, 2015eko "migrazio-krisia" deiturikoa hasi zenetik. Baina bidea zaildu egin da ordutik. Mugimendu-murritzaketak areagotu egin dira eta Poliziaren jarduna zorroztu, zeharkaldia izugarri zailduz. Kroazia, Europar Batasunaren babes nabarmenarekin, "Benetako Europa" –Schengen Itunarena– iristeko zeharkatu beharreko azken muga bilakatu da. Eta zailena.

 JOSEBA SANZ

Basoetan, mendietan eta ibaie-
tan barrena, milaka lagunek
ekiten diote urtero Kroaziako
ia 200 km eta Esloveniako zati
txiki bat zeharkatzeari, Triestera (Ita-
lia) iristeko. Handik, Europako beste
herrialde batzuetara abiatzen dira.
Trieste bizitza eta askatasun berri
baten hasiera da. Han, Gian Andrea
Franchi eta Lorena Fornasir izango di-
tuzte zain, arropa, janaria eta babes
emateko, eta beren zauriak sendatze-
ko. Franchiri eta Fornasirri legez kan-
poko immigrazioa sustatzea leporatu
diete, eta epaiketaren zain daude.

ITXAROTEA

Bosniako iparraldean, Bihać, Velika Kladuša eta Una Sana kantonamenduko beste herri txikiago batzuetan, milaka pertsona pilatzen dira, Italiarako bidaia jarraitu nahian. 70.000 iritsi omen dira Bosniara azken bi urteotan. Horietako asko egokitutako esparruetatik kanpo bizi dira, etxe eta lantegi abandonatuetan eta, hotza apaltzen denean, kanpandetan.



Afganistango eta Pakistango pertsona asko daude, baina nazionalitateen sorta oso zabala da. Siriako, Iraneko eta Irakeko jendea dago. Marokokoak eta Aljeriakoak saiatzen dira Balkanetako bidea Turkiatik egiten, herrialde horretara bisarik gabe hegan egin dezaketelako. Bangladeshetik etorritako pertsona franko ere badaude, eta batzuek ibilbide osoa lurretik egin badute ere, gehienak Dubaitik etortzen dira, Oman eta Irlandik barrena. Egipto, Libia, Palestina eta Sudangoak badaude, baita India eta Nepalgoak ere. Velika Kladuša inguruan, Tibet eta Mongoliako pertsonak ezagutu ditut, eta, gertuko herri batean, kubatar bat, Moskutik Bosniara Armeniaren bidez iritsi zena, Kubak Errusiarekin dituen akordio historikoei esker.

Bihać-en ez bezala, non esparruetatik kanpo dauden gehienak gizon helduak diren, Velika Kladuša inguruan aniztasun handiagoa dago. Haur txikiak dituzten familia asko daude, gehienak afganiarrak. Bakarrik bidaiatzen duten emakumeak eta adingabeak ere badaude.

Gehienek urteak daramatzate bidean, Greziatik igaro ondoren. Beste asko Bulgaria eta Serbia zeharkatuz iritsi dira. Afganistango egoera politikotik ihesi urteak daramatzaten afganiarrek itxaropen izpi bat ikusi dute euren herrialdeko azken gertakarien ostean. Hala ere, haien igarobiderako murrizketak leundu edo asilo-eskaera erraztu beharrean, Europako mugak gehiago blindatzen ari dira.

Bizitza normaltasun apal batean igarotzen da inguruan. Etengabeko kezkak janaria eta eguneroko higie-ne dira. Hainbat erakundek –batez ere alemaniarrek– arropa, janaria eta higie-ne-gaiak ematen dizkiete. Laguntza medikoa eta, batzuetan, tratamenduak ere ematen dituzte. Ekintzaileak oso gazteak dira, laguntzeko borondate nabarmenarekin. Batzuetan pertsona-kopuruak gainezka egiten badu ere, boluntarioen jokaera bikaina da, eta sortzen diren loturek, batzuetan familia osoekin, istorio asko partekatze-ko aukera ematen dute. Laguntza ematen duten tokiko erakundeak ere badaude. Zlatan Kovačević-ek, “Sos Bihać” erakundearen fundatzaileak, hanka bat galdu zuen Balkanetako gatazkan, eta ordutik behartsuei laguntzea erabaki zuen.





30 urte geroago, Bihać-eko eta Velika Kladuškako etxeetako hormetan gerraren bala-inpaktuak ikusten dira oraindik. Hala ere, biztanleriaren zati handi batek, dirudienez, setioa eta sufrimendua ahaztu egin ditu. Gaur egun neke-giro orokorra sumatzen da, etsaitasun zabal erraz bihurtzen dena, bai igarotze horretan dauden pertsonen aurka, bai hainbat erakundetako boluntarioen aurka. Egia da, halaber, herriarren zati batek lagundu egiten die la bidean dauden pertsona horiei, eta batzuetan ura eta janaria ematen dizkiela. Kasu batzuetan etxean hartu dituzte neguan. Hala ere, ultrasukuineko

talde txikiek, tokiko prentsaren laguntzarekin, giroa berotzen dute aldizka, *migratzaileen* aurkako manifestazioak antolatzen. Boluntarioen aurkako eraso edo jazarpen kasu jakin batzuk ere izan dira. Una Sana kantonamenduko agintariek "arazoa" amaitzeko asmoa agertu dute, eta Segurtasun ministroari eta Bosnia eta Herzegovinako Ministroen Kontseiluari *migratzaileen* fluxua geldiarazteko eskatu diete. Baita kantonamendutik kanpo horiek birkoatzeko esparru berri bat eraikitzeko ere. Azken hilabeteetan, Poliziak hustuarazitako *squat*-en kopurua handitu egin da.

THE GAME

Denak "game"-era joateko behar dutena biltzen saiatzen dira. Helburua Kroaziako muga zeharkatzea eta Italiaraino jarraitzea da. Kroaziako Poliziak irabazten du gehienetan *game* horretan, baina giza eskubideekiko errespetu gutxirekin jokatu.

Batzuk hogeitaka aldiz saiatu dira Italiara iristen. Muga zeharkatzea nahiko erraza da, ez baitago harresirik ezta alanbre-hesirik ere. Zenbait lekutan muga zeharka daiteke errekatxo bat igaroz edo baso edo zelai bat zeharkatuz. Izan ere, Kroaziako zeharkaldian harrapatzen dituzte gehienak. Ehunka



"pushback" kasu daude dokumentatuta, hau da, Poliziak egindako legez kanpo-ko itzulketak bortitzak. Pertsonak jazarri egiten dituzte, biluztu, arropak erre eta dirua kentzen diete. Mugikorrak ere Poliziak lapurtu edo suntsitzen dizkie. Sarritan Poliziaren txakurrek ere hozka egiten diete. Adingabeak kolpatzen dituzte eta sexu-abusuak gertatu izan dira. Afganistango emakume batek polizien ukituak jasan zituen eta mutil bat bortxatu zuten adar batekin, adibidez. Europako legeak urratuz, asilo-eskaerak eta familia berriz elkartzeko eskaerak sistematikoki baztertzen dira. Itzulketak horietako batzuk Esloveniatik eta ba-

tzuetan Italiatik egiten diren "kateko pushback-ak" dira, eta estatu horietako poliziek modu koordinatuan parte hartzen dute.

Aurtengo apirilaren 2an hainbat erakundek osatutako *Border Violence Monitoring Network*-ek txosten berezia argitaratu zuen, 1.000. lekukotasuna zela eta. Poliziaren indarkeria eta abusua, batzuetan, tortura- Balkanetako mugetan: mila kasu azken lau urteetan, 15.000 pertsonari baino gehiagori eragin die. Kasuen %75ean, pertsonak jo dituzte, eta %20an, poliziek pistolak erabili dituzte. *Pushback* askok Bosnia dute helmuga, nagusiki Una Sana kantonamendua.

Agerikoa da, aipatutako txostenek salatzen denez, itzulketak bortitzak tresna instituzionalizatua direla, eta ez ekintza indibidualak edo isolatuak.

Aurretik, 2020an, BVMN-ek *Itzulketen liburu beltza* aurkeztu zuen, bi liburukitan. Europako Ezkerrak argitaratu eta Europako Parlamentuan aurkeztu zuen, estatukideek eta EBko agentziek giza eskubideen muturreko urraketak egin dituztela frogatuz. Bestalde, hainbat hedabide independentek ere itzulketak bortitzen irudiak lortu dituzte.

Itzulketen biktimek grabatutako bideo askotan poliziek eragindako lesio fisikoak ikusten dira, batzuk larriak.



Lorena Fornasir migratzaile bati zauriak sendatzen.
Piazza della Libertà, Italiako Trieste.



Kroaziako Poliziak droneak, infragorrien kamerak, kamera termikoak eta bihotzaren taupadak detektatzen dituzten gailuak dauzka. Guztia Europar Batasunak finantzatuta eta Frontex-en laguntza logistikoa erekin. Bruselak 41 milioi euro ordaindu dizkio Zagreb-i azken bost urteetan mugak kudeatzearen truke.

Hori gutxi balitz, pertsona horiek orografia konplexu bati egin behar diote aurre, ibai emaritsuen bat-bateko gurutzaketa eta neguan zero azpiko tenperaturari. Asko izan dira ibaiekin itota hil direnak. Errepideetatik urrun ibiltzen dira beti, normalean basoetan barrena, ikusiak izateko beldurrez. Sarritan nekazariak edo herri txikitako biztanleak salatzen dituzte. Horrekin batera, pertsonen kontrako minen arriskua dago. Aurtengo martxoan, pertsona bat hil eta beste lau larri zauritu ziren Saborsko eskualdeko mina baten eztearen ondorioz. Azken hamarkadetan minak kentzeko kanpainak martxan izan arren, Kroazian 258 kilometro koadro minaturik daude oraindik.

Zeharkaldia burutzea lortu ez zuteneko batzuk Bihać-eko hilerriko txoko batean lurperatuta daude. Hamar

Triesteko Piazza della Libertà 'Balkanetako ultra trail' makabroaren jomuga bihurtu da, Europa blindatuaren erakundeek defendatzen omen duten askatasuna bila doazenentzat

bat hilobi daude "NN" idazkunarekin, *Nomen nescio* latinez, izen ezezaguna, identifikatu gabeko pertsona. Noman izeneko haur bat dago ere, urtea bete baino lehen hila. Pertsona horietako batzuk itota hil ziren, beste batzuk *squat* baten sutearen biktimak, eta beste batzuk gaixotasunagatik, baina, azken batean, guztiak hil ziren haien migrazio-ibilbidean sufritutako baldintzen gatik.

225 km egitea basoetan ezkutatu ta benetako ausardia da. Naturgune ederretan zehar igarotzen da, Risnjak

Parke Nazionale edo Italiako Riserva Naturale della Val Rosandra kasu. Zati batzuetan, ibilbideak Bide Dinarikoa erekin bat egiten du, hau da, Balkanak zeharkatzen dituen Ibilbide Handiko bidezidorrarekin. Bioaniztasun handia dago bidean eta ez da zaila hartzak aurkitzea.

Inguru idilikoak infernu bihurtu daitezke, baina. Pertsona horiek entrenamendu espezifikorik eta elikadura egokirik gabe egiten diote aurre ibilaldiari. Ez dute ekipamendu aproposik, ez azken belaunaldiko GPSrik, ezta hornidurarik ere, eta, gainera, tokiko herriarrak eta Poliziaren zaintza-baliabide sofistikutuak saihestu behar dituzte.

BIDEAREN AMAIERA

Esloveniako muga igarota, helmuga gertuago dago. Azken orduak Italiako lurraldean izaten dira, Triestera iritsi arte. Piazza della Libertà delakoan, tren geltokiaren aurrean, Gian Andrea Franchi eta Lorena Fornasir, Linea d'Ombra erakundearen sortzaileak, urteak daramatzate pertsonak laguntzen, goseak, nekatuta eta oinak txikituta iristen direnean.

2015ean, Balkanetako migrazio-



fluxuak beren hirian amaitzen hasi zirenean, Franchik eta Fornasirrek, fisioterapeuta eta filosofia-irakasle erretiratuek, ez zuten zalantzarik izan pertsona horiek laguntzeko. Orduz geroztik, arratsaldero, astelehenetik igandera, Piazza harrera-leku bihurtzen saiatzen dira.

Aurtengo otsaileko astelehen batean, goizeko bostetan, Polizia euren etxean sartu zen immigrazio klandestinoa sustatzearen salaketarekin eta erakundearen ordenagailuak eta dokumentuak konfiskatu zizkieten. Ordutik,

Franchi eta Fornasir prozesu judizial batean daude, elkartasuna kriminalizatu nahi duena, Carola Rackete-rekin gertatu zen bezala, Lampedusan 50 pertsona ez lehorreratzeko agindua betetzeari uko egin zion itsas kapitain alemaniarra; edo Cédric Herrou-rekin Alpeetan, Italiatik Frantziara pasatzen laguntzeagatik, eta beste ekintzaile eta kolektibo askorekin.

Plazan besarkadak, irribarreak, poza eta ziurgabetasuna ikusten dira. Aurpegi askotan sinesgogortasun-adierazpenak ikusten dira, jazarpena amai-

tu dela eta handik aurrera agian dena pixka bat errazagoa izango dela barneratu nahian. Zauriak garbitzen eta bendajeak jartzen kontzentratzen da Lorena Fornasir, burua ia altxatu gabe, erakundeko beste kide batzuek ura eta janaria banatzen dituzten bitartean.

Triesteko Piazza della Libertà hau "Balkanetako ultra trail" makabroaren jomuga bihurtu da. Bosniatik heltzen diren pertsona hauek guztiak "Libertà" horren bila etortzen dira, Europa blindatuaren erakundeek defendatzen omen duten askatasun bera. ●

Zurekin, Hernani Burujabe

Tokiko garapen jasangarrian oinarritutako herri proiektu bat mamitzen ari gara Hernani; energia, elikadura, merkataritza, zaintza, telekomunikazioak, kultura, lana, moneta... gure baliabideen gaineko subiranotasuna berreskuratu nahi dugu.

Eman pausoa eraldaketara!

burujabe.hernani.eus



Aña-Mari Vergez Arrantzalea

“Ontzijabe handien eskuetan dira arrantzaren sektoreko egitura guztiak”

 JENOFA BERHOKOIRIGGIN  DANI BLANCO

Erretretara sartu eta etorri zaio arrantzari gisa eramandako bere azken batailaren emaitza: 2017an Frantziako Estatua auzitan ezarri eta orain jakin du administrazioa kondenatua izan dela, atun gorriaren kuoten banaketan ez dituelako kontuan hartzen ingurumenean, sozialki eta ekonomikoki itsasontziek eragindakoak. Kuoten gehiengo arrantza industrial eta intentsibora banaturik da, arrantzari ttipiak kaltetuz. Errealitate hori eraldatzeko borrokatu da azkarki Donibane Lohizuneko arrantzaria. Ziburuko plazan hitzordua jarri eta xeheki azaldu digu lehorrekooi ezezaguna zaigun itsasoko errealitatea.

Hasi gaitzen aktualitatearekin. Frantzia auziperatu zenuten 2017an eta orain jakin da irabazi duzuela. Europa mailan, 2012ko Arrantza Politika Bateratuak lehen aldikoz bideratzen zion ezagupen bat arrantza ttipiari. Zehazki, 17. artikulua dio kuotak modu justuan banatu behar direla, ingurume-

nean, sozialki eta ekonomikoki arrantzak dituen eraginak kontuan hartuz, eta selektibitatea edo hautuzko arrantza sostengatuz. Artikulu honi ez dio orain arte kasurik egin Frantziak: bakarrik ontziaren lehengotasunean oinarritzen da, 2001, 2002 eta 2003 urteetan arrantzatuen arabera banatuz kuotak. Horregatik kondenatua izan da, zehazkiago, atun gorriaren kuoten banaketan zentratuz. Mediterraneoan inguratze-arrantzan dabilzanek dute kuoten %80, gaitzeko sareekin dabilzan ontzi erraldoiak dira, aste batzuz arrantzatzen dute urterako kuota. Arrainak parke batzuetan jarri eta gizentzen dituzte ondotik japonesei esportatzeko. Beste %20 Atlantikorako da, eta hor ere gehiengo handia doa pelagikoei, hots, arrantza industrialari. Pelagikoak binaka aitzinatzen dira, sare erraldoi bat jarritz bien artean eta dagoen guztia bilduz.

Arrantzatu beharrekoa hartu eta bestea bota.

20 tona atun arrantzatu, baina beste 10, 15 edo 30 tona dituzte hilik botatzen, ttipiegia, andeatuak edo beste espezie bat direlako. Eredu horren kontra gabil-tza borrokan. Ondoan gaitzuz gu, ontzi ttipietan, amuarekin ala sare ttipiekin arrantzan. Haiek tonaka hitz egiten dute, guk arrainka, guretzat arrain bakoitza da inportantea. Ez gara logika berean, gu lokalki gabil-tza lanean, bertako ekonomian txertatuz gurea.

Bere lekua badu arrantzaz bizi nahi duen guztek?

Erosi dezake ontzia, dirulaguntzak ere ukan ditzake, baina baliteke kuotarik ez lortzea. Europa mailan erabakitzen da harrapaketa tasa, estatuen artean banatzen da, eta ondotik lokalki, azkenik, arrantzaleen artean partekatzen. Kontua da pelagikoei eta inguraketa-teknikan dabilzanek banatuak direla, administrazioa lehengotasunean oinarritzen delako. Auzi horri esker argi uzten da bestelako irizpideak ere badirela. Argi da gerla ez dugula irabazia, baina baitaila hau bai eta arma bat gehiago dugu esku artean.

Alta, lehorretik ikusita, badirudi garapen iraunkorraren kezka arrantzan ere txertaturik dela.

Alde guztietatik dira “arrantza arduratsuz” ala “arrantza iraunkorraz” mintzo; alta, dena doa zentzu berera: arrantza industrial eta intentsiboaren alde. Itsas-baliabideak lanjerrean zirela oharturik, ontzidia ttipitzeko erabakia hartu eta ontziak hausteko dirulaguntzak banatu zituen Europak 2000 hasitapenean. Kontua da suntsitutako ontzi gehienek arrantza bolumen ahula zutela, eta paraleloki, ontzi berriak eraikitzen laguntzak bolumen askoz handiagoko ontzietara bideratu zirela. Ondotik, botalekura bidaltzearen aldeko laguntzak banatu zituzten, arraina eskas izanik ez zirelako gehiago errentagarriak. Arrantza intentsibora bideratutako diru zama ikaragarria da. Baina, horra non bapatean, 2012an Europak kontutan hartzen duela arrantza ttipia –ontzien %80 ordetkatzen duena–. Oraindik paperean da



eta borrokaren funtsan dugu arrantzale multzo honen eskubideen bermatzea.

Sindikalgintzatik eramaten duzuen borroka da?

Ekoizle Antolakundean egon daitezke arrantzaleak, baina sindikatuko kide izan behar dira. Sindikatu bat sortzen saiatu ginen, ELB eta Confederation Paysannekin gogoetatu genuen, baina ezin izan genuen aurkeztu, ez genuelako lortu zerrenda osoa osatzen. CGT eta CFDT gisako sindikatu federazio handi batean baldin bazara ez zara zerrenda oso bat osatzera behartua, haatik, ttipia bazara bai. Gure etsaiek ere ez dituzte zerrenda osoak osatzen, baina berdin-berdin aurkeztu daitezke, sindikatu potolo bati lotuak izanik.

Instituzioetan zer leku du arrantza ttipiak?

Lanbide ttipien kasuan ontzijabea itsasoan da, lanean da; haatik ontzi handien kasuan, sozietateei dagokionez ontzijabea lehorrean da. Hots, erakunde profesionaletan egon daiteke eta hau da errealtatea: handien eskuetan dira sektoreko egitura guztiak. Diote arrantzale guztion interesen alde dabiltzala baina ez da egia. LIFE Low Impact Fishers of Europe (Eragin Ttipiko Arrantzale Europarrak) plataforma sortu genuen hainbat herritako arrantzale ttipien artean, eta berehala Blue Fish sortu zuten etsaiek, noski baliabide anitzez gehiagorekin, eta ekonomiaren eta politikaren esparruan dauzkaten harremanek bidea zabalduz. Lobbying ikaragarria bideratzen dabilta.

“Etsaia” hitza bi aldiz erabili duzu.

Pisu handia du hitz honek.

“Etsai” hitza erabiltzen dut arrantza eredu eta lanabes kaltegarriekin dabiltzanak aipatzerakoan. Arrantza ttipiaren kaltetan, kuota guztiak pilaturik dituzten horiek izendatzeko baliatzen dut.

Zein da Donibane-Ziburuko portuko errealtatea?

1992an, ontzia erosi nuenean, 80 eta 100 ontzi artean baziren. Denetarik bazen –pelagikoak, arraste-ontzi handiak, lanbide ttipiak, azken hauek dira egunarentzat itsasoratzen direnak eta sare ala amuarekin arrantzatzen dabiltzanak-. Gaur egun 30 bat ontzi dira, ez da handi asko, bi pelagiko pare dira. Baina badira “franko-espainolak”, usu Ondarroakoak, benetako piratak, ontziak erosi eta Fran-

tziako kuotei esker dabiltzanak. Garaian “lanbideen arteko gerla” bazen, ttipien eta handien artekoa eta legitimoa zen. Orain, handirik ez denez asko –hori diot, baina lau ontzien artean berdelaren kuoten %80 dute eta atunarentzat berdintsu-, bestelakotu da zeingehiagoka. Demagun denona diren arrantza batzuk –adibidez itsas belarrarena– berenganatzen saiatzen dira batzuk. Horrelakoak ez ditut jasaten; erraten diet: “Handien aurka borrokatu gara, kuotengatik guztia zutelako eta orain berdina egiten duzue?!”.

Arraina ‘denona eta inorena’ izanik, zer heinetaraino bada elkartasuna zuen artean?

Lanbide horri lotu nintzenean batek erran zidan *il faut s’aider mais pas céder* (elkar lagundu behar gara, baina norberak berea ahaztu gabe). Kohesio bat egon da luzaz gure artean, adierazi gabeko akordioak bagenituen espazioaren banaketari ala amu kopuruari dagokionez. Baina 1.000 amutik 1.500 amutara

“

*Arrantzale ttipiok
itsasoan gara, beraz gu
gabe hartzen dituzte
handiek erabakiak”*



pasa zen, eta hortik 2.000ra. Gaur egun 3.000 amurekin dabilta batzuk. Ni ez naiz gehiago itsasoan, baina entzuten dudanez, adostasun hauek desagertuz doaz. *Beti gehiago, beti gehiago* logikaren ondorioz hau ere galtzera doa. Gogoratzen naiz laborarien arteko bileretara nindoalarik miresten nituela hemendik hamar ala hogeit urteetara proiektatzen ikustearekin. Egia da ere gutxiago garelako, portu ttipia da Donibane-Ziburukoa. Okerrena da batzuk uste dutela gutxiago izan eta arrantzarako eskubide gehiago ukanen dituztela. Baina hori ez da egia: gutxiago izan eta indar gutxiago dago.

Life egitura Europa mailan zein arrantzale ttipien plataforma Frantzia mailan. Arrantzale izateak hainbeste militatzera eramanez zintuenik pentsatzen zenuen?

Hasi nintzenean ez zen arrantzarako baimenik behar. Egun batean atuna arrantzatzen genuen, bestean legatza, ondokoan lupia, horrela genbiltzan, sasoiaren erritmoan ere, berdelak gehiago otsailean, atuna udaberri bukaeran, legatza neguan... Nire ontzian bakarrik amuarekin arrantzatuko gurela erabakia nuen, eta horrela genbiltzan batetik bestera. Baina egun batez harriduraz ohartu ginen ezin gurela horrela segitu. Sotilki bideratu zuten aldaketa: erakunde profesionaletan ziren handiek bazekiten kuotena eta ez ziguten ezer erran. Haiek bazekiten arrantzarako eskubideak 2001, 2002, 2003 urteetan arratzatzen oinarrituko zirela, baina guk ez. Guk urte horietan ez genuen atunik arrantzatu, eta horregatik ezin izan nuen gehiago espezie hori arrantzatu. Gu itsasoan gara, beraz erabakiak gu gabe hartzen dituzte. Gure artean hitz egiten hasi eta antolatzearen hautua egin genuen, Ekoizle Antolakundearen baitan borrokatzeko. Ez nuen uste hainbeste borrokatu beharko nuenik. WWF eta Greenpeaceko emakume gazte batzuk harremanetan ezarri gintuzten Britainiako eta Mediterraneoko arrantzale ttipiekin eta hortik sortu genuen Arrantza Ttipi Artisanaren Plataforma.

Arrantzale familia batetik zatoz?

Ez, aita zuberotarra nuen eta kostalde-ratu zen ama ezaguturik, hau donibandarra izanik. Argazki laboratoriora baretan nenbilen eta hogeit bat urterekin arrantzale bat ezaguturik, kuriostatez bere ontzira joan nintzen. Gogoratzen naiz sentitutakoaz: “Ohhh, hau suertea



badutena!". Erran behar da baldintza idealak zirela, eguzkiaren altxatzea, itsasoa kalme, amuarekin arrantzan. [irriz]. Ondotik, lan ttipiak egin nituen, baina aspertu nintzen. "Zergatik ez nuke saiatuko?" galderak geroz eta toki gehiago harturik, entseatu eta *batxe-batxe* bidea egin nuen. Nire desafio ttipia izan da, ez da beti erraza izan.

Zure elkarrizketetan arrantzale emakume izateari buruzko galdera dator beti. Horrek aspertzen zaitu?

Bai eta ez. Ulegarria da, batez ere gizonen osatutako ingurunea delako.

Nik ere luzatuko dizut galdera beraz.

Orokorrean erran dezaket oztopo baino laguntza gehiago jaso dudala. Bistan da, gibeletik erran izan denaz ez naiz jakin, zikinduko ninduten seguruenik, baina ez dut jakin nahi eta gainera, berdin zait. Erran nezake paretik behintzat ez direla sobera ausartu misogino izatera. Bai, entzun izan dut "zoaz garbiketa egitera", "hobeto zintaizke sukaldean!" edo "nola egiten duzu ontzian pixa egiteko?" -hasteko, zer inporta zaizu!-. Itsasoan erabilitako VHF irratitik ere batek "alu zikina", "zakil xurgatzaile" irainez estali ninduen; "ez zaizu interesatzen zure gizonkeria beste norabaitera bideratzea?" galdera luzatuz moztu nuen.

1992an erosi zenuen zure ontzia.

Bai eta 1993-1994 urteak hondamendiak izan ziren. 40 bat ginen amu bidez

legatza arrantzatzen eta bapatean ez zen gehiago arrainik, pelagikoez dena arrantzurik. Alta, debekatua zaie, zuloa amu arrantzara bideratua delako. Administrazioetik ihardoki ziguten ezer ezin zutela egin. Jasangaitza zen eta anitzek utzi zuten lanbidea, edo beste teknika bati lotu ziren, bolintxeroari adibidez. Gutik segitu genuen. Garai ikaragarri dorpeak ezagutu ditut. Begira orain, pelagikoak desagertu eta legatza berriz agertu zaigu...

Marinel gisa hasi zinen. Itsasontzia bilatzerakoan, emakume izateak ateak hetsi zizkizun?

Ez nuen Donibane-Ziburun galdetu, banekielako ezagutzen nituenek tripulazioa osaturik zutela. Royan hirian atzeman nuen eta horri esker lortu nuen itsas-libreta. Maleruski ontzia erre zitzaion eta ez zen gauzatu. Donibandar bat ezagutu eta lau hilabetez harekin egon nintzen, sare bidez arrantzan -nahiz eta sareak ez ditudan hainbeste gustuko, hondakinak ondorioztatzen dituelako-. Lau urtez marinel izan ondoren ontziburu izateko formakuntza segitu eta ontzia erosi nuen.

Hortik zure tripulazioa osatu zenuen.

Xantza anitz ukan nuen, Marko izeneko gazte maitagarri batekin hasi nintzelako lanean, izan arrantzan izan brikolajeen jakintza handia zuen hark. Bizpahiru ginen, ahalaz hiruen artean genbiltzan. Batez ere gizonekin nabigatu dut, bai-

na zazpi urtez egon nintzen emakume batekin eta une batean hiru emakume ere baginen. Harro nintzen eta oso pozik bakarrik emakumeak izatearekin, egoa puztu zitzaidan ederki.

Ez dut itsasoa ezagutzen, baina arriskutsua ere dela erran daiteke?

Argi da eguraldiak garrantzia handia duela eta arriskutsua izan daitekeela. Argi da itsasoa ez dela laku bat eta mugimendua badela. Pertsonalki, ahal bezain arrisku guti hartzen saiatu naiz. Baina bapatean etorri daiteke aro txarra eta horri diogu beldur handiena. Enbata haizea bapatean agertu daiteke.

Erretretan zira orain. Militantzia alde batera utzirik duzu?

Badu hiru urte erretretan naizela, azken lau urteetan nirekin itsasoratzen zen gazteak erosi zidan ontzia. Uste dut gazteen esku utzi behar dugula arrantzaren esparruko militantzia. Militatu eta ingurukoei begiratzerakoan bakarrik zu bezalako erretretadunak baldin badituzu, bada gauza bat gaizki doana! Hamaika arrazoi ditugu bestalde ere borrokatzeko: Arbonako okupazioa, etorkinekilako elkartasuna, eta beste. ●





**EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI**

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

KUTSADURA ETA INTERNET JASANGARRIA, LIKE-TIK LIKE-ERA

Euskarabildua teknologia eta komunikazioaren inguruko jardunaldien XI. edizioa egingo da urriaren 28an Donostiako San Telmo Museoan, goizetik eguerdira arte. Euskal Herriko zein nazioarteko bederatzi hizlarik hartuko dute parte bertan, ondoko izenburua abiapuntu: “Zenbat kutsatzen du like batek? Mundu osorako internet jasangarrirantz”.

 MIKEL EIZAGIRRE

Larrialdi klimatikoaren auziak agenda politikoan lehentasuna irabazi du aspaldion; “gizadiak inoiz aurre egin behar izan dion erronkarik handienetarikoa”, Euskarabilduaren antolatzaileen hitzetan. Bide horretan, kutsaduraren eta jasangarritasunaren kontzeptuak informatikaren eta telekomunikazioen esparrura ekartzeko asmoa du aurtengo egitarauak.

“Frutak plastikoz inguratuta ikusten ditugu supermerkatuetan eta asaldatu egiten gara -arrazoi osoz-. Ordea, sarean segundoro mugitzen ditugun milioika datuek duten eragin ekologikoa ez dugu ikusi ere egiten”. Antolatzaileek dioten moduan, abian den digitalizazio-prozesu bizkorrek ez du uzten horren jasangarritasunaren inguruan hausnartzeko aukerarik. Hori ez ezik, XXI. mendeko bigarren hamarkadako testuingurua “muturreko desberdintasun sozialek” ere ezaugarritzen dutela gogorarazi dute. Halaber, azpiegitura teknologikoek horretan guztian duten eraginaren inguruan pentsatzeko tartea eskainiko du Euskarabilduak urriaren 28an, besteak beste. “Munduaren amaiera distopikoetatik harago, etor-

kizun posible desiragarriak” aztertuko dituzte batez ere, fokua alternatiben eraikuntzan jarrita.

HURRENKERA INFORMATIKOA

Jardunaldiak hainbat galderari erantzungo die, gako nagusi batzuk eskaini asmoz. “Internet jasangarria eraikitzeke metologiez” mintzatuko dira batik bat, baina baita “Internetaren ohiko erabilerak eragiten duen kutsaduraz”, “Solar Punk” delako filosofiaz, “arbasoen teknologien balioez” edota “software librearen eta garapen jasangarriaren arteko harremanaz” ere. Hizlarien pönientziez eta ikuspuntuen elkartrukeaz haratago, martxan diren proiektu zehatzak ezagutzeko aukera izango da: Fair Phone, Onaro eta Reciclanet, hain zuzen ere.

HIZLARIAK

Donostian izango dira Sandra Perez Iametzta komunikazio taldeko kidea, Kris De Decker *Low-tech Magazine* aldizkariaren egile belgikarra, March Momenanea Guatemalako Ziberfeministen elkarteke kidea, Spideralex Donestech kolektiboaren sortzailea eta Beñat Ira-

suegi Talaies Kooperatibako kidea. Bestalde, Iratxe Achak, Xabier Igartuak eta Ivan Gonzalezek aurkeztuko dituzte FairPhone, Onaro eta Reciclanet proiektuak, hurrenez hurren.

KRIS DE DECKER

“How (not) to build a solar powered internet”, edo, “Nola (ez) eraiki eguzki-energia bidezko interneta” izenburu duen hitzaldia eskainiko du De Deckerrek. *Low-tech Magazine* aldizkariaren edizioaz gain, horren argitalpena sostengatzen duen Interneteko zerbitzaria eguzki-energiar hornitzeaz ere arduratzen da egilea. Lancaster Unibertsitateko Demand Centre-en hainbat artikulu plazaratu ditu, “praktika sozialei dagokienez energia-eskaria aztertuz”. Human Power Plant proiektua ere bultzatu du, giza-energia ekoizteko aukerak aztertzen dituen arte proiektu bat. 2007an *Low-tech Magazine* sortu aurretik, zientzia eta teknologiar buruz aritu izan zen hainbat hedabidetan, kazetari autonomo gisa. Gaur egun Bartzelonan (Herrialde Katalanak) bizi da, eta solasaldian jorratuko duen gaiaren hainbat ertz aurreratu dizkigu.



INTERNETAREN KUTSADURA

De Deckerren ustez, oso zaila da sareko jarduerak ingurugiroari eragiten dion kaltea zehatz-mehatz neurtzea, Interneta "eboluzio bizkorreko arkitektura konplexua" baita. Ondorioz, ikerketetan ohikoa da kalkuluak atera orduko emailtzak desfasatuta egotea. Hala eta guztiz ere, "Internet osatzen duten makinek erabiltzen duten energia guztiaren estimazioa" egin daitekeela azpimarratu du De Deckerrek, eta bide batez, baita "makina horiek ekoizteko beharrezkoa izan den energiarena" ere.

EGUZKI-ENERGIAREKIN

Energia-iturri berriztagarriak informatikan txertatzerakoan, "web-diseinuak Interneteko energiaren erabileran duen izugarrizko eragina" ohartarazi nahi du De Deckerrek. Bere hitzetan, garrantzizkoena ez da energiaren jatorria, "energiaren kontsumoari mugak jartzea" baizik. Zentzu horretan, web-zerbitzaria panel fotovoltaiko txiki batekin elikatzeak "webgunea muga jakin batzuen barruan diseinatzera derrigortzen gaitu". Bere iritziz, horixe da gaur egun falta dena: mugak ezartzea. "Ez dago ezer-

txo ere web diseinatzaileak webgune arinak eraikitza behartzen dituenik, energia merkea eta itxuraz infinitua delako", azaldu du *Low-tech Magazine* aldizkariaren editoreak. Bestalde, webgune arrunten kasuan, "ezinezkotzat" jo du horiek eguzki-energia bidez elikatu-tako zerbitzari propioetan abiaraztea. "Berritu beharra dago", ondorioztatu du belgikarrak.

EMISIOEN MURRIZKETA

Eguzki-energian oinarritutako alternatibek isurketak murriztea posible dela



Kris de Decker 2019ko hitzaldi batean.

uste du, hori bai, “soilik webgune astunagoak sortzeko joera geldituz gero”. Energia-iturria aldatzeak, bere horretan, ez dakar aldaketarik, baldin eta ez bazaio energia-eskaera gorakorren auziari heltzen. “Energia eta emisioak behar dira eguzki-panelak, bateriak, eguzki-kargaren erreguladoreak, zerbitzariak eta abar ekoizteko”, gogora ekarri du De Deckerrek. Zentzu horretan, berrikuntzaren oinarrian datzan filosofia azaldu du: “Eguzki-energia duen gure webguneak emisioak murrizten ditu, ez eguzki-energiak elikatzen delako, oso arina delako baizik”.

MUGAK

Oraindik, eguzki-energiaren erabilera egokia zabaltzeko bide luzea aurreikusten du De Deckerrek. Bere irudiko, hainbat auzik ihes egiten die energia berriztagarri hornitutako zerbitzariari. “Adibidez, gure routerrek ez du eguzki-energiarekin funtzionatzen. Hori egitea gustatuko litzaiguke, baina Internet hornitzailea da routerraren jabea eta ezin dugu energia gutxiago kontsumitzen duen batekin ordezkatu”, aitortu du. Gauza bera gertatzen omen da erabiltzaileen ordenagailu motarekin.

SOFTWARE LIBREAREN ESKUTIK

Ezinezkoa da informatika arloan alter-

Ezinezkoa da
informatika arloan
alternatibaren
eraikuntzaren
inguruan hitz egin
eta software librea
ez aipatzea

natibaren eraikuntzaren inguruan hitz egin eta software librea ez aipatzea. De Deckerrek oso gogoan du kode irekiko softwarearen garrantzia, eta ziur dago energiaren erabilera murrizteko duen ahalmenaz. Gaur egun, hardware informatikoa “berehala” zaharkitzen da; “software berri eta astunagoaren ondorioz”, De Deckerren hitzetan. Microsoft Windowsen kasua aipatu du prozesua azaltzeko, ondoko adibidearekin: “(Microsoftek) Erregularitasunez uzten dio antzinako sistema eragileei laguntza tekniko emateari, eta berriagoak eguneratzera behartzen ditu bezeroak”. Sistema eragile berriek, berriz, baliabide gehiago

kontsumitzen dituztenez, ordenagailu berriak behar dituzte ongi funtzionatzeko. Sortzailearen aurreikuspenen arabera, kode irekiko softwarearen erabilera zabaltzeak kontrako norabidean aurrerapausoa ekarriko luke, hardwarearen zaharkitze-prozesua motelduz. Horrekin batera, “makina horiek guztiak ekoizteko energia-iturri berriztagarri gutxiago” baliatu beharko lirakeela azaldu du.

BIDERAGARRITASUNA

Askok ezinezkotzat jotzen du energia berriztagarriak eskala handian eraiikitzea. De Deckerrek ez du zalantza izpirik: “Teknikoki behintzat, proiektu horiek goi-teknologiako alternatiba guztiak baino errealistagoak dira, merkeagoak direlako eta energia zein material gutxiago behar dutelako”. Erronka, beraz, honakoa litzateke sortzailearen ustetan: “Jendea beti linean ez dagoen Internetarekin motibatzea”.

IZEN-EMATEA

Euskarabilduaren saioak 50 lagunekoa edukiera mugatua izango duenez, beharrezkoa da bertan parte hartu nahi duen orok aurrez izena ematea. Guztiz doakoa da, epea irekita dago eta www.euskarabildua.eus webgunean bertan egin daiteke. ●



Abiadura handiko
trenak Madrilgo
Atochako geltokian.

Argazkia:
Carlos Teixidor Cadenas
CC BY-SA 3.0
Wikimedia commons

Abiadura handia *Ez eraginkorra, injustua eta jasanezina*

Aurten egindako txostenean, Espainiako Estatuko abiadura handiko trenaren sarea sakon aztertu dute David Hoyos, Andoni Kortazar eta Gorka Moreno EHUko irakasleek. Ondorioak oso txarrak dira, eta *The Conversation* webgunean zabaldutako artikulu honetan zergatiak azaltzen dituzte. Aldi berean, eta egungo berotegi gasen murrizketari begira, tren eredu hori lagungarri baino oztopo dela diote.

 DAVID HOYOS / ANDONI KORTAZAR / GORKA MORENO

THE CONVERSATION

Artikulu hau *The Conversation*-ek argitaratu du gaztelaniaz eta hau haren itzulpena da. Creative Commons lizentziari esker ekarri dugu.

2022an 30 urte beteko dira Espainiako abiadura handiko lehen linea, Madril-Sevilla, martxan jarri zenetik. Munduko bigarren sarerik zabalenean (3.086 km) 56 milioi euro baino gehiago inbertitu ondoren, abiadura handiko trenaren (AHT) Espainiako ereduaren aldeko argudio sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak desagertu egin dira, metatutako ebidentzia zientifikoaren argitan.

Larrialdi klimatikoak are eta ageriago utzi du Espainiako abiadura handiaren zentzugabekeria. Premiazkoa da Espainiako garraio-politika birpentsatzea neurri zehatz eta sinesgarriekin, Parisko Akordioaren konpromiso klimatikoekin bat datozenak.

MUGIKORTASUN JASANGARRIA ARDATZ

Europako Batzordeak trenbidearen urte europarra izendatu zuen 2021a. Garraio-modu jasangarriagoak sustatzea izan da Europako politikaren lehentasunetakoa joan den mendearen amaieratik. Helburua da ezkontzea bidaiarien eta salgaien garraioaren hazkunde geldiezina, eta gizartearentzat, ingurumenarentzat eta ekonomiarentzat gero eta handiagoak diren kalteak.

Trena oinarritzkoa da garraio politika berri horretan eta protagonismo berezia hartu du Espainiaren kasuan, abiadura handiko trenean egindako inbertsio masiboen bidez.

Paradoxikoki, 1990 eta 2018 artean, trenbidearen kuota modala %7tik %6ra jaitsi da bidaiarien garraioan, eta %10etik %4ra salgaien garraioan. Beraz, ez da harritzekoa Kyotoko Protokoloa indarrean izan den garaian, garraioa izatea BEG berotegi-efektuko gasen isurketa (+ %73) handitu duen sektore bakarra. Gaur egun, garraioaren isurketek guztien %31 osatzen dute.

EZ DA ERAGINKORRA ARLO EKONOMIKOAN, EZ DA BIDEZKOA ARLO SOZIALEAN

Espainiako abiadura handiko tren-ereduaren ebaluazio ekonomikoaren arabera, eraikitako korridoreek ez dute errentagarritasun finantzariorik eta sozialik. Bestela esanda, gizarteak ez du inoiz berreskuratuko inbertitutako dirua.

Emaitza horien atzean bi arrazoi nagusi daude: batetik, gizartearen beharretatik urrun dagoen planifika-

zio eskasak bidaiarien eskaera urria ekarria du; eta bestetik, inbertsioak etengabeko atzerapenez, gainkostuz eta ustelkeriaz egin dira –Europako eta Espainiako kontu-auzitegien hainbat txostenek islatu duten bezala–. Horrek guztiak, ADIF-Abiadura Handia estatuko enpresa publiko zorpetuena izatea eragin du.

Trenbide-eredu horren sustatzailerik nabarmendu dute beharrezkoa dela estatu osoan ondo lotutako sarea osatzea, haren erabilgarritasuna hobetzeko. Hala ere, azterketen arabera, errentagarritasun soziala are txikiagoa da bidaiarien eskari potentzial txikiagoa duten guneak konektatzen diren heinean.

Abiadura handiko
inbertsio erraldoien
beste ondorioetako
bat Espainiako
aldiriko sarea
alboratzea izan da,
eta honek tren-
erabiltzaileen %90ri
ematen dio zerbitzua

Non da gakoa, ikuspegi soziale-tik? Erabiltzaileak ez daude abiadura handia ordaintzeko prest, eta hauek ordaintzen dutenarekin ozta-ozta esaltzen direla zerbitzuaren kostu aldakorak. Horrek esan nahi du inbertsioa erregresiboa dela.

Espainiako abiadura handiak ez du frogatu eskualdeen garapena bultzatzen duenik, ezta produktibitatean aldaketarik eragin duenik ere. Ondorio handienak eraikuntzaren sektoreri eta geltokien inguruko hiri-berrantolaketara (espekulaziora) mugatzen dira.

Abiadura handiko inbertsio erraldoien beste ondorioetako bat Espainiako aldiriko sarea alboratzea izan da. Sare horrek Espainiako tren-erabiltzaileen %90ri ematen dio zerbitzua, eta batez ere nahitaezko mugikortasunari; hau da, batez ere lana, ikasketak edo bestelako arrazoiengatik garraio beharra duten herritarrei.

JASANEZINA DA INGURUMENARI DAGOKIONEZ

Lurzoruaren okupazioa, hesi-efektua, paisaia duen inpaktua edo kutsadura akustikoa eta atmosferikoa izan dira tren lasterraren ereduaren ingurumen-ondorio esanguratsuenetakoa. Horiek alde batera utzita, tren molde honen izaera ekologikoari buruzko eztabaida berotegi-efektuko gasen emisioen balantzean zentratu da, klima-aldaketan duen inplikazioagatik, jakina.

Eredu horren defendatzaileek argudiatu ohi dute, arrazoiz gainera, garraiatutako pertsona/merkantzia baikoitzeko emisio txikiagoak direla, eta horregatik, ingurumenarentzat onuragarria dela trafikoa errepidetik eta hegazkinetik abiadura handiko trenera bideratzea.

Hala ere, azterketa horiek funtsezko gabezia bat izan dute: azpiegitura horien eraikuntzarekin lotutako isurketen kontabilitatea alde batera uztea. Familia batek, adibidez, etxetresna elektriko berri bat ordezkatu behar badu eraginkortasun energetiko handiagoko beste bategatik, ez du erosketa egingo kontuan hartu barik berriaren kostua.

Bizi-zikloaren azterketa funtsezkoa da testuinguru horretan. Klima-aldaketaren mehatxuak energia "garbien" proposamen ugari akuilatzen ditu, baina behar bezala aztertu ondoren, horiek ere negatiboa izaten dute balantze garbia. Duela gutxi, adibidez, horixe bera ikusi da hidrogeno urdinaren kasuan.

Gure azterlan berriaren emaitzen arabera –ezagutzen dugunez argitalpen akademikoan esparruan azterketa hori egiten saiatu den lehenengoa– abiadura handiko Espainiako sare osoaren ingurumen-balantze garbia, kaltegarria izan gabe, uste zena baino nabarmen pobregoa da.

2016. urtea erreferentziatzat hartuta (eskuragarri dauden azken datuak), Espainiako abiadura handiko sareak batez beste hamabost urteko funtzionamendua behar du eraikuntzarekin lotutako BEG isuriak konpentsatzeko (62 eta 87 urtera arte, SO₂ eta PM₁₀ partikulen isuriei dagokienez, hurrenez hurren). Hala ere, alde nabarmenak daude korridore artean: 9 urte Andaluziako korridorean, 12 Kataluniakoan, 20 Levantekoan eta 79 iparraldekoan.

Ebaluazio ekonomikoarekin gertatzen zen bezala, emaitza kaskar ho-

Euskal Y-aren eraikuntza lanak, Tolosa eta Legorreta arteko zatian. Autoreen esanetan, AHTaren gasen emisioen balorazioa egiten da eraikuntza lanak kontuan hartu barik.



IREKIA / EUSKO JAURLARITZA

rietan eragin handiena duen faktorea garraio-dentsitate txikia da; funtsean, AHTk bidaia gutxi erakartzen du kutsagarriagoak diren garraioetatik, bereziki automobiletik edo hegazkinetik. Eta gainera, bidaia-erakargarritasunak eramanen ditu, eta kanpoan uzten da ia errepidez soilik egiten den merkantzien garraioa. Ikerketaren arabera, gainera, emaitzak okertu egiten dira sarea garraio-eskaera txikiagoa duten korridoreetara hedatu ahala.

Arazoa, ordea, ez da linea batzuk justifikatuta ez egotea. Espainiako AHTko sarearen balantze klimatikoaren emaitzak testuinguruan jarri ondoren, Espainian garraioaren urteko emisio guztiak %1 murrizten ozta-ozta laguntzen duela ikusten dugu.

AHT LARRIALDI KLIMATIKOAREN AURREAN

Orain arte aipatutako guztia baliagarria zatekeen, duela 20 edo 30 urte abiadura handiko trenaren inbertsioari buruzko debatea sustatzeko. Enpresa eraikitzaileentzat onuragarriak eta gizarte

gainerakoentzat kaltegarriak izan diren inbertsioak alde batera uztea ahalbidetuko zukeen.

Bestela esanda, gizarteak ez du inoiz berreskuratuko AHTn egindako inbertsioa

Hala ere, oraingo eztabaida ez da hau, edo ez luke izan behar. Gaur egungo eztabaidak ez du zerikusirik abiadura handiko trenaren alde edo kontra egotearekin, garraiobide gisa, zalantzarik gabe, bere azkartasuna, erosotasuna eta puntualtasuna bezalako bertuteak baititu.

Testuingurua erabat aldatu da, klimaren larrialdi globaleko egoera berri batean gaude. Munduko komunitate zientifikoak BEG emisioak nabarmen

murrizteko deia egin du, temperatura globala 1,5 gradura mugatzeko. Jarduteko unea da, ekintzarena, eta ondorioz, isuriak murrizteko nazioarteko konpromiso gero eta handiagoak hartzen ari dira: neutraltasun klimatikoa nahi da 2050erako eta, zortzi urte eskas-tan, %55erainoko BEG murrizketak 2030erako. "Ez dago B planik, ez baitago B planetarik", esan du duela gutxi Emmanuel Macronek Parisko Hitzarmenaren urteurrenean.

Hala, beharrezko eta presazko eztabaida da ea Espainiako abiadura handiak zein neurritan lagun dezakeen ala ez Parisen hitzartutako emisioak nabarmen murrizten; eta, IPCCren azken txostenaren emaitzen arabera, are handiagoa izan beharko du Glasgowko Konferentziaren ondoren.

Eta testuinguru horretan, zera ondorioztatzen dugu: abiadura handiko treneredua ez da irtenbidea. Are gehiago, irtenbidea oztopatzen du, eta Espainiako garraioaren beharrezko trantsizio ekologikoan ez daukagun denbora galarrastan digu. ●

Ybarratarren euskal musika bilduma



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Bilbo, 1857. Banco de Bilbao sortu zen; akziodun nabarmenen artean Ybarra familia zegoen. 1902an Bizkaiko Labe Garaiak abian jarri zirenean ybarratarrak ere tartean ziren. Bilbo edota Getxoko alkate izan ziren, Bizkaian nahiz Madrilen diputatu. Sendiaren Sevillako adarra itsas merkataritzan eta elikadura industrian nabarmendu zen, baita esklaboen salerosketan ere... Eta, itxuraz, musikazaleak ere baziren.

1996ko martxoan Eresbil euskal musikaren artxibora zazpi egurrezko kutxa iritsi ziren, barruan 634 zilindro zituztenak. Argizarizko zilindroak musika entzuteko disko aitzindariak ziren, Edisonek 1877an asmatutako fonografoan erabiltzen zirenak. Bizkaiko Artxibo Historikotik Eresbilera eramandako zilindro sorta Ybarra familiak 1898-1905 urte inguruan osatutako musika bilduma zen.

Zilindro gehienak Bartzelona, Madril eta Valentziako diskoetxetakoak –edo hobe esanda, zilindro-etxeetakoak– dira, baina 150 Bilboko bi enpresa fonografikotatik grabatu zituzten: 144 Viuda de Ablanedo e Hijo etxean, eta beste seiak Enrique Garcíaren piano biltegian.

Ablanedoren alargunaren zigilua duten zilindroetan denetik dago: Verdi edo Wagnerren opera zatiak, zarzuela, espainiar kantuak, habanerak... Baina zenbait euskal kantu eta zortziko ere badaude, gehienak Maguregi jaunak kantatuak –abizena bai,



ERESBIL

Ybarra familiaren bildumako bi zilindro, biak Bilbon grabatuak eta biak zazpi pezetaren truke erosiak: *agur nerebiotzeco* (sic) eta *euskalduna*.

baina izenik ez da ageri zigiluetan–: *Agur nerebiotzeco, Iru dámacho, Izazu nitzas cupira...* Ybarratarrek lortutako Enrique Garcíaren sei grabaketak, aldiz, euskal kantuak dira: *Betti-maite, Euskalduna, Goy Zeco y Sarra...* guztiak Arriaga jaunaren ahotsenak.

Ybarra familiako zilindro gehienak oso egoera kaskarrean iritsi ziren artxibora. Jatorrizko kaxetatik atera zituzten eta kanpotik biltzen zituen kotoia kendu zieten. Hezetasunak eragindako kalteak oso nabarmenak ziren, ziurrenik 1983ko Bilboko uholdeen ondorioz. Zilindro batzuk pus-

katuta zeuden, beste batzuk erreta ziruditen eta gehienak onddoek hartuta zeuden. Salbatu zitezkeenak ondo garbitu zituzten orduan. Geroago digitalizatuko zituzten, eta horietako batzuk entzungai daude gaur egun Eresbilen webgunean.

Eta hala, Ybarra familiaren zaletasunari esker –eta aberastasunari esker, fonografoa eta zilindroak erostea ez baitzegoen edozeinen esku– eta azken hamarkadatan egindako kontserbazio ahaleginak medio, soinu kalitate oso kaskarreko baina balio handiko euskal kanta mordo bat iritsi zaigu. ●



Herkulanoko dieta diskriminatzailea

Vesuvioren errautsek hartutako Herkulanoko 16 biktimaren hezurak aztertu berri dituzte Yorkeko unibertsitateko adituek, eta, isotopoei esker, duela 2.000 urte zer jaten zuten jakin ahal izan dute: dieta anitza zeukaten, oli-ba olioak garrantzia handia zuen, eta egungo Mediterraneoko biztanleek baino hiru aldiz itsaski gehiago kontsumitzen zuten.

Baina ikerketaren ondorioz nabarmenena, gizonen eta emakumeen dieten arteko aldea da. Gizonezkoek zereal, arrain eta itsaski gehiago jaten zuten, eta emakumeek fruta eta barazki gehiago. Gizonek etxetik kanpo denbora gehiago pasatzen zuten eta, oro har, emakumeek baino estatus sozial altuagoa zuten, eta horrek azal dezake dieten bereizkeria. ●

Lurrak eskertuko digun agenda

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Ohikoena da agendan norbera idazten joatea egin beharrekoak. Lanak antolatzeke modu bat da. Baina zer irudituko litzaizuke, irakurle, betiko agendaren funtzio hori mantentzeaz gain, liburuxkak berak proposatuko balizkizu egin beharreko lanak? Funtzio horiek eta gehiago dakartza Ilargia eta Landareak 2022 agendak, norberaren eguneroko bizitza ilargiaren eta lurraren aroekiko irekita bizi nahi duen ororentzat, gozagarri eta jakin-min asagarri.

Bosgarren urtea du produktua eta urtez urte egiten zaio, erabiltzailea asetzeko intentzioz, berrikuntzaren bat. Orain artekoei liburu formatua eman nahi izan zaie gida-liburu, agenda-liburu estilora eta aurtun, espiral eta guzti, "betiko" agendaren itxura handiagoa emateko apustua egin da, ilargi eta lurraren inguruko jakintzarekin uztartzeko esentzia galdu gabe.

Baliagarria izango zaio egunero ilar-giarekin eta lurrarekin dantzan dabilenari bertan azaltzen baitzaizkio hileroko eta asteroko lanak eta ondoan izango baitu lekua bere oharrak idazteko; eta berdin erabilgarria izango da "betiko" agenda moduan baliatu nahi duenarentzat edukiko baitu nahikoa leku bere eginbehar guztiak apuntatzeko eta ondoan izango ditu landareei lotutako bitxikeriak. Jakintza pilulak.

Ongarriak da aurtengo gaia. Honi lotutako testu eta ilustrazioekin irekiko da hilabete bakoitza, Jakoba Errekondok eta Antton Olariagak mimoz prestatuta. Bertako eta sasoiko barazkien zerrenda ere ezagutu ahal izango dugu hileroko, eta hurrengo bi orrietan, agendan sartu aurretik, Baratzea, Fruitu baratzea, Basoa eta Lore baratzea ataltan zer lan egiteko unea den azalduko da. Ilargiaren hileko gora-behera eta zahar-berritzeak azaltzeko grafikoa ere ez da falta, noski.

Eta segidan agenda. Bi orritara ezker-eskuin aste osoa ikusgarri, lurrari lotutako asteko lan proposamen zehatz batekin, ilargiaren asteko mugimenduekin eta oinarrian bertako eta sasoiko barazkien ilustrazioak dituela.

Bigarren zati bat ere badu liburuxkak. Atzeko partean Jakoba Errekondoren oinarritzko informazioa bildu da. Barazkien eta lurraren ongarietarako gako batzuk aipatzen dira, barazkiak noiz erein, landatu eta uzta bildu, fruituen uzta urtean zehar zein den, landareak nor norekin jarri eta bati eta besteari nork laguntzen dion jakiteko koadroa, luarraren inguruko informazioa...

Eskuragarri dago argia.eus/azoka helbidean. 2022. urtea ondo antolatuta eta baratzea txukun edukitzeko beharrezko izango dugun agenda. ●



ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



Proiektua betidanik interesgarria iruditu zait. Izan nintzen aldizkariaren harpidedun, baina ez nuen denbora hartzen irakurtzeko eta alaba bati pasa nion. Orain laguntzeko aukera aprobetxatu nahi dut.

Hondarribiko Maribek

ARGIAren lerro editorialarekin identifikatzen naizelako. Gainera, 'Beranduegi' podcasta demasa da!

Berrizko Iñakik

IRUÑEAN

ARGIA bizikletan banatzen hasi gara

ARGIA modu jasagarri batean bizikletaz banatzeko pausoak ematen jarraitzen dugu, eta pozez esan nahi dizuegu Iruñean ere hasiko garela, oraingoz Alde Zaharrean, Zabalgunean, Arrotxapean, Donibanen, Iturraman, Arrosadian eta Azpilagañan. Ciclolab Koop.eko lagunak ariko dira zeregin horretan.

Banaketa burujabe eta hobeago bat eskaintzea ez da bide erraza –Arrasaten, adibidez, lehengo sistemara itzuli behar izan dugu, alternatiba hobeago bat aurkitu artean–, baina pozik gaude emaitzekin eta jarraituko dugu eredu hori zabaltzeko ahaleginetan.



GOSEA, BIRSORKUNTZAREN HAZIA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

raileko edo urriko ilunabarra da eta bidaia arriskutsu bat egitera abiatu da txantxangorria Britainiako Bresteko portutik: mila metro aldera hegaldatuz, orduan 45 kilometro inguru eginez, eta, ezer txarrik ez bada, goizean goiz Berriatuko Asterrikan izango da, leher eginda. Indar-hustuta lehen lana gosaria aurkitzea izango du. Pagotxa ederra topatuko du; izan ere, urte sasoi horretan zuhaitz, arbola eta zuhaixka ugari fruitua heltzeko bidean da: intsusa (*Sambucus nigra*), laharra (*Rubus fruticosus*), elorri beltza (*Prunus spinosa*), elorri zuriak (*Crataegus spp.*), gorostia (*Ilex aquifolium*), andura (*Sambucus ebulus*), zumalakarra (*Frangula alnus*), karraskila (*Rhamnus alaternus*), basaerramua (*Euonymus europaeus*), endalarra (*Smilax aspera*), hagina (*Taxus baccata*), otsalizarra (*Sorbus aucuparia*), hostazuria (*Sorbus aria*), maspila (*Sorbus torminalis*), gurbeondoa (*Sorbus domestica*), maaltza (*Pyrus communis*), sagarmina (*Malus sylvestris*) eta abar. Txantxangorriak ia edozein fruitu jango du. Horien gehien hazia ere jan, eta fruitua hazi zuen landaretik urrun zirinetan bilduta lurrari emango dio hazi hori. Arbola, zuhaitz eta zuhaixka berriak sortzen lagunduko du, bere ondorengoek udazkenetako bidaia egiten dutenean gosari gozoa erraz eta oparo aurki dezaten. Txantxangorria neguko hotzenean etxe inguruan ikusten dudanean poztu egiten naiz. Etengabe lanean ari da, urrutira gabeko basoak eta eskaiak sortzen eta birsortzen, bioaniztasuna anizten. Naturaren birsorkuntzaren errotarritzar horretatik kontzienteki aldendu den espezie bakarra geurea da.

Birsorkuntza horretan hazia da landare gehien sasoi gorena. Haziak biziko ditu landareak amestu dituen bidaia, joan-etorri eta harat-honatak. Eta hazia nolako joanaldia halako. Masusta barruko haziak txantxangorriaren



GRIS379 / PIXABAY

hegaldia egingo du, baina koko (*Cocos nucifera*) batek inolako presarik gabe lasai asko igaroko ditu itsasoak eta itsasoak, gurutzontzia balitz bezala. Txikoria-belarraren (*Taraxacum officinale*) haziak ufadatxo txikiena baliatuko du hegazkinik gabe haizearen magalera igo eta paraxutisten eran han edo he-

men jaisteko. Lapa-belarraren (*Arctium lappa*) haziak belkroaren kakoekin ardiaren ilajeari helduko dio, eta, hura larretoki tikienean bueltaka badabil ere, erori aurreko egunetako bidaldia izugarria irudituko zaio, hazia kakoz janztea erabaki eta lortu zuten bere amonen amonek amestu zuten erakoa. ●

LANDA EMAKUMEAK GARA

GIPUZKOAKO LANDA EREMUKO EMAKUMEEN
SARETZA BULTZATZEKO EKIMENA

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Gipuzkoako sei Landa Garapen Elkartek biltzen dituten entitateak da Landaola. Herri txikietan eta baserri-auzoetan bizi diren emakumeen arteko elkar ezagutza eta saretea sustatzeko asmoz, Landa Emakumeak Gara egitasmoa abiatu berri du orain elkartek, emakumeen ekarpenari aitortza egin eta haien lana ikusgarri egiteko asmoz. Sormen lehiaketa da proiektutik antolatatu duten lehen ekimena; urriaren 15era arte aurkez daitezke lanak.

SORMEN LEHIAKETA, HAUSNARKETA BULTZATZEKO

Landa emakumeak eta bizikidetzak izanen da lehiaketako gaia, eta Gipuzkoan errol-datuta dauden emakumeei zuzendu diete ekimena. “Begirada ezberdinetatik landa eremuaren, bertako emakumeen eta bizikidetzaren inguruko hausnarketak jaso nahi ditugu”, diote antolatzaileek. Euskarri grafiko bat (argazkia, irudia, marrazkia, collagea...) aurkeztu beharko da, hausnarketa-testu txiki batez lagunduta, eta biak baloratuko dira maila berean. Landaola.eus/lehiaketa web-orrian aurkeztu beharko dira lanak, urriaren 15a baino lehen.

Jasotako sormen lanak adinaren arabera hiru kategoriatan banatuko dituzte, eta horietako bakoitzean hiruna sari egonen dira: 600 euro lehen postuan gelditzen direnentzat, 450 bigarrenentzat, eta 300 hirugarrenentzat. Epaimahaiaren sariez gain, publikoarena ere izanen da: bi lagunentzako gaua eta gosaria Gipuzkoako landetxe batean. Behin lehiaketa bukatutakoan, lanak ikusgai jarriko dituzte Landaolaren webgunean, eta erakusketa ere antolatuko dute abenduan. “Sormen lehiaketatik sortutako hausnarketak, irudiak eta bideoak landa-emakumeekin sustatu nahi den sarete lan horren baitan aurrerago burutu daitezkeen dinamiketan erabiltzeko lan tresna bezala ere erabiliko dira”, diote.

ELKAR-EZAGUTZA ETA KOLEKTIBOAREN INDARTZEA

“Landa Emakumeak Gara egitasmoarekin emakumeen bizitzetan eragina duten gaiez elkarrekin hausnartzeko espazioak bultzatu nahi ditugu”, diote elkartetik. Herrietako emakume taldeen nahiz bananakoen arteko elkar ezagutza sustatu nahi dute, harreman horretatik



gune eta ekimen kolektiboak sortzeko. Emakumeen ikusgarritasuna lantzeko bide horretan ekimen gehiago ere egin izan dituzte Landaolan. Aipatzekoa da, esaterako, Landaola sarietan Gipuzkoako emakumeek lehen sektorean edo landa eremuan abiatutako lanak saritzen dituen atala.

“Emakume horien lana bertako bizitzan giltzarri bada ere, zoritxarrez, ezezaguna da gizarteko gainontzeko biztanleentzat”, azaltzen dute elkartetik. Dena den, azken urteetan aldaketa sumatzen ari direla diote: “Emakumeek, betetzen duten funtsezko papera gizarteratzeko eta aldarrikatzeko bidea hartu dute, eta ahalduz indibidual eta kolektiboan pausoak ematen ari dira”. Bada, aldaketa hori bultzatzea eta ahalduz horretan sakontzen laguntzea da egitasmo berri honen helburua ere. ●



HEMEN DAGO NAFARROA



Azken Muga jaialdia

MUGA, KULTURAREN AGERTOKI NATURAL BILAKATUTA

JONE ALAITZ URIARTE • DANI BLANCO





Aurtengo udan ere, 2016tik egin ohi den bezala, Azken Muga arte eta kultura jaialdia antolatu dute Zarateko Lepoan, Gipuzkoako eta Nafarroako lurrek bat egiten duten lur-eremuan. Natura eta artea uztartzen dituen diziplina anitzeko jaialdia da, hilabete eta erdiz, askotariko ekintza eta programazioa antolatuz, garai bateko ohiturei balioa eman eta mugaz bestalde dauden bi herriak hurbiltzeko asmoa duen ekimen kolektibo eta parte-hartzailea. Aralarreko Natura Parkearen bihotzean kokatuta, hainbat artista, adierazpen artistiko eta publiko zabala batu ditu jaialdiak Balerdi tontorpeko basoan.



Ezkerreko orrian, Nexgraff grafitigilea. Eskuineko orrian, goialdean, Jon Iñaki Ormazabal eskultorea ezkerretara, eta Ainhoa Cenzano (Zunbeltz antzerki taldea) eskuinetara; behealdean, Alitruta musika taldea.



Mugek beti izan dute nolabaiteko izaera arbitrarioa, fikziozkoa, baina inplikazio eta ondorio erabakigarriak dakartzate. Nork ezartzen dituen, zeren arabera marrazten diren, eta finean, lurren zatiketa horrek gerora dakartzan ondorioak dira Azken Muga jaialdia sortzearen atzean dauden hausnarke-tetako batzuk. Aldi berean, pasabide, komunikabide eta kultur zubi ere izan daiteke muga, horregatik erabaki zuten kultura eta natura ardatz dituen jaialdia Zarateko Lepoan egitea, Bedaio (Tolosa, Gipuzkoa) eta Azkarate (Nafarroa) banatzen dituen apenas hiru kilometroko eremuan. Muga hori kokalekutat eta abiapuntu kontzeptualtzat hartuta, alde bateko eta besteko artistak gonbidatzen dituzte urtero, naturan esku-hartze artistikoak egin, eta bi herriak banatzen dituen muga horren inguruko hausnarketak proposatzeko. Horrela, urtez urte, kontzertuak, erakusketak, hitzaldiak eta abar antolatuz joan dira lekune natural horretan. Garai batean Zaratek truke-rako barazki eta ganadua jaisten bazuten, egun kultura eta arte adierazpenak dira herri horietako biztanleekin partekatatu nahi direnak.

“Intxaurrondo azpian aparka deza-kezue”, esan digu Bedaio auzoko baserri bateko andreak. Baserriko leihoak

geranio gorritz estalita ditu eta baserri ondoko ukuilu eta behitegian mugimendu bizia nabari da, nahiz eta larunbata izan. Zira jantzi eta aterkia hartu, eta maldan gora abiatu gara, Zarateko Leporantz, Gipuzkoako lurrak atzean utziz eta, gutxinaka, Nafarroarantz gerturatzten. Pare bat langa pasatu ondoren, eta tartean galdu samar ibili ostean, bidea nabariagoa egiten da eta hogeit bat minutu pasatuta ikuskatu dugu *Aundiya*, egurrezko aulki itzela, altueran ia zortzi metro dituen eta dagoeneko jaialdiaren ikur bilakatu dena. Guillermo Olmo artistak 2016. urtean egin zuen lana da eta jaialdia aurkezteko erabiltzen dute: uda aurreko hilabeteetan, Tolosaldeko eta Araitzeko herrietan egiten diren aurkezpenetara aulki erraldoia eramaten da jaialdiaren enblema gisa. Urte haue-tan guztietan, bertsolariek, musikariek eta dantzariak emanaldiak egin dituzte aulki erraldoiaren eserlekuan.

Zarateko Lepoan pagadi-baso ederra dago; pagoek bi zirkulu osatzen dituzte beraien artean eta txoko horretan antolatzen dira jarduera gehienak, zeru irekian, Aralar mendilerroaren babesean. Bertan, aurreko asteetan egin diren esku-hartze artistikoen aztarnak ikusi daitezke oraindik, guztiak ere materia naturalekin sortutakoak. Makilez osatutako harresiaren barruan ilustraziok daude,

kolore biziz tindatutako adaxkekin egindako egurrezko instalazioa ere badago, hala kortxo egindako eta zuhaitz bate-tik esekitako eskultura edo mugikaria ere. Izan ere, aurkezten diren lan guztiek ingurumenarekiko errespetutsuak izan behar dute aintzat izanik erabilitako materiala, bere degradazio naturala, obraren iragankortasuna, eraikitzeko erraztasuna eta erabateko integrazioa izatea ingurune naturalean. Zaratek, pagadi ondoan dagoen eraikuntza txikian, *Veinte, hogeit, vingt* izenburua daraman erakusketa dago: 20x20x20 zentimetroko formatuan egindako eskultura txikiak aurkitu daitezke bertan, 40 artista baino gehiagoren partehartzearekin. Aurtengo edizioan, gainera, film proiektzioak, kontzertuak, bertso saioak, performanceak, hitzaldiak, antzerkiak, serigrafia taile-rrak edota III. Aralarreko artzain gazta txapelketa antolatu dira, ekitaldi batzuk aipatzearren.

Badirudi azkenaldian ugarituz doazela ohiko zirkuitu eta erdigunetatik urrundu, eta ingurune naturalean antolatzen diren jaialdi eta ekimen kulturalak. Arte erakusketa, kontzertu eta emanaldi gehienak herri eta hiriguneetan ikustera ohituta gauden arren, eskertzekoa da horietatik kanpo gero eta anitzagoa den eskaintza kulturala. Urmuga ekimenak, adibidez, hemeretzi



Ezkerretik eskuinera:
Elena Scaratti italiarra,
Angels Artigas Claret kataluniarra,
Jofre Sebastian kataluniarra eta
Olatz Pereda euskal herritarra.



egun irauten duen ibilbidean musika eramaten du Euskal Herriko mendietara, kulturaz eta mendiaz gozatzeko modu berria eskainiz eta herrigintza, harreman sozialak, kulturalak eta politikoak sortuz eta saretuz. Aurten, Euskal Herriko hainbat mendate eta tontor igo dira, eta mendiguneetan Olatz Salvador, Donostiako Orfeoia, Niko Etxart, Dupla, MIZE edo Ekizaren kontzertuak ikusteko aukera egon da uztailako egun udatiarretan. Bestalde, Saran antolatzen den Usopop jaialdiak ere musika berrien erakusle izan nahi du eta Sarako inguruneak han eta hemengo taldeen elkargune bilakatzen ditu. Aurten, “Bihotzak josiko ditugu

berri” lelopean, hiru topaketa antolatu dituzte eta azarorako “Mapa galduak” ekimena antolatzen dabilta, Sara herrian eta inguruan elkartze artistikoak proposatuko dituen musika eta arte festibala. Arte sorkuntzari dagokionez, eta ildo beretik jarraituz, aipatzekoa da Karrantzako Muturbeltz proiektua, –artzain lanbidearen modu berean– desagertzeko arriskuan dagoen ardi espeziea babesteko modu sortzaile eta konprometituan lan egiten duen proiektua. Agroekologiaren, praktika artistikoaren eta tokiko jakintzaren bitartez, egoera horri aurre egitea da ekimen horren helburua. Zentzu horretan, artistentzako egonaldi programa dute

martxan: Ondo Bizi Arte Egonaldiak, artearen bidez ardi- eta artzain-munduaren egoerari buruz hausnartzeko, eztabaidatzeko eta haren berri zabaltzeko espazioa zabalduz.


Beraz, badira gure inguruan kultura deszentralizatzeko desirarik abiatu eta natura, kolektibotasuna, parte-hartzea eta publiko anitzetara heltzea helburutzat duten kultur ekimenak. Azken Muga jaialdiaren seigarren edizioa pasa den urriaren 2an amaitu zen, eta aurtengoan ere jaialdi batek elkartu ditu mugaren bi aldeetako herritarrak; musikak, arteak, bertsoek eta festak berri ere elkartu ditu garai batean muga batek banatu zituen herriak. ●





LIBURUA

Biografia feminista bat



DANI BLANCO

EMPAR PINEDA ERDOZIA: GORPUTZAK HALA ESKATUA

KATTALIN MINER

HERNANIKO UDALA/
BERDINTASUN ARLOA, 2020

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Gaurkoan aurkeztuko dizuedan liburua berezia da. Ez dut liburudenda askotan ikusi. Katakarakera egindako bisita batean aurkitu nuen, ez bainuen bere berririk. Akaso izango da Hernaniko Udala/ Berdintasun arloa delako argitaratzailea. Eta sarri, liburu hauek bide motzagoa izaten dute. Pena da, niretzat ezezaguna bazen ere interesgarria baita kontakizuna.

Hernaniko emakume talde batek egin-dako ekimen batean du hasiera liburuak, herriko emakumeek egin dituzten ekarpenak eta borroak omendu eta balioan jartzeko asmoarekin antolatua. Ekimen horretan, liburuko protagonista den Empar Pineda Erdoziaren bizitza azaltzeko proposamena jasoa eta onartua izan zen.

Liburua Kattalin Minerrek Pinedari egindako elkarrizketaren ondorio da. Empar Pineda Erdoziaren biografia bat,

azken finean. Baina biografia soil izatetik urruti, dimentsio kolektiboa ematen diote bien artean. Izan ere, Miner eta Pineda, biak ala biak dira militante feminista hernaniarrak.


Elkarrizketa batean oinarritua egonagatik ez ditugu galdera-erantzunak irakurriko. Minerrek lehenengo pertsonan kontatuko dizkigu elkarrizketaren nondik norakoak. Pinedaren erantzunak batzuetan lehenengo pertsonan egongo dira kaxotx artean. Bestetan, zeharka kontatuko dizkigu autoreak. Honek tonu gertukoagoa ematen dio testuari, Minerrek bere bizipen eta oroitzapenekin lotutako hausnarketak tartekatzen dituelako. Erantzunek sortzen dioten emozio eta miresmena agerian uzten ditu. Pare pare hitz egin dutela nabari da.

Niretzat ezezaguna zen protagonista. Emakume aktiboa, segurua eta ausar-

ta. Garaiko lesbiana ezaguna eta abortu eskubidearen defentsan aritua. Hainbat antolakunde, mugimendu eta elkarretaratze ditu hizpide. Bere historia da, baina historia orokorragotik ere badago zerbait liburuan.

Ariketa bereziki interesgarria iruditzen zait gaur egungo Euskal Herrian gure emakumeen genealogia propioa egitea. Genealogia politikoa egiten tematu gara, eta emakumeak oro har baina feministak bereziki, albo batera uzten dira liburu gehienetan. Horretarako liburu sakon eta zehatza da *Gure genealogia feministak* liburuak, mugimendu feministarren kronika jasotzen duena.

Minerrek idatzitako liburuak argazki eta ilustrazio gutxi batzuekin dago osatuta. Baina bakarrik motza dela da. Gustura jarraituko nuke emakume honen inguruan irakurtzen. ●



MUSIKA

Gogoz berpiztu



PHOENIX THE CLAYTON AUTOEKOIZPENA

IKER BARANDIARAN

Aramaio Arabako herri euskaldunena da, hurbiltasunagatik Arrasate-rekin lotura handia daukana. Hala, aramioarrek gertutik bizi izan dute alboko herriak (izan) duen musika bizitza handia. Dena den, gutxi dira han sortutako taldeak eta are gutxiago oihartzuna izan dutenak, Xementerioz gain.

The Clayton 2018an sortu zuten 18 urte pasa zituzten gazte batzuek. Bertsioak egiten hasi –The Clash, Ramones, Barricada, The Hellacopters...– eta jarraian lau kantuz osatutako maketa eman zuten argitara. Discípulos de Dionisos-ekin egindako emanaldi batean zeresana eman zuten eta entzuleak harritu zituzten. Horren ostean, pandemia etorrita, lortutakoa izoztuta gelditu zen.

Bada, pandemian lanean gogor aritu dira, taldekideen aldaketak izan dituzte –Txerrikumeak taldeko kide bat batu zaie–, eta Capsula taldeko Martin L Guevarak Bilbon duen Silver Recordings estudioan honako lan luzea grabatu dute. Aramaion kokatutako Pletina Films-ek egin ditu diseinuak eta taldeak argitaratu du diskoa.

Urgentziaz kaleratutako maketa atzean utzi du taldeak eta hazi egin da; are gehiago, erabaki dute ingelesa eta euskara tartekatzea –kantu berean askotan–, eta gaztelania alboratzea. Garapen dezenteko kantuak egin dituzte, ama askotarikoak.

Tight fitting pants-en zikintzen dute punk-rocka, Hot Dogs!-en glam eta harrokeriarekin. *Kendu gorbata* da Perlata

taldeko lagunek ukitu bereizgarria ematen dioten punk-rock melodikoa, The Hellacopters-en *High Visibility*-ren gitarra gardenek irekitakoa. *Out of the box*-ek bluesetik edaten du, parranda giroko rock-and-rolla ere bada eta Detroit-eko soula ere ekartzen du. *American dreamer*-ek gogorarazten du Ingalaterrako labeldun heavyaren iturria, trenaren parekoa. *Rush hour*-ek barneratuta dauka outlaw rock-and-roll hilibillya, tempo erdiak tartekatuta. *Listaria efektua* rock-and-roll bizia eta eroa da. Uauu! *Phoenix feathers* abiatzen da pausatutako bluesetik, Zen Guerrillaren pareko rock-and-roll eztanda egin artean. *Flammable fingers*-ek gorazarre egiten dio lotsagabe berriro hard-rockari, *Zentzumenak gal-tzeraino*-rako bidean. ●



Erromantizismotik ihes

 MARTA SENDIU ZULAIKA

Amaia Arrazolak bazekien alaba bat izango zuela, baina ez zekiena zen alaba horrek ama bat izango zuela eta ama hori bera izango zela. Amatasuna ez da bat eta bakarra, baizik eta ama bezainbeste amatasun mota egon daitezke, eta Arrazolak bere amatasunaz jarduten du *El meteorito* liburuan. Ilustrazio bidez ama izateak zer nolako gogoetak ekarri dizkion ikus daiteke bertan. Izan ere, Amaia amak Amaia bidaiaria, Amaia ilustratzailea, Amaia irakurlea... ordeztu zituela zirudien alaba jaio berrian.

Bizitzako garai horretan sentitzen diren sentimendu nahasiak adieraztea izan da gasteiztarraren asmo nagusia. Amatasunak sortzen dituen maitasun absolutuaren eta urduritasunaren ar-

teko dualtasuna azaleratu nahi izan du, beti ere haren esperientzia pertsonaletik abiatuta. Ane izeneko meteorito bat heldu zen Arrazolaren bizitzara duela bi urte eta bizipen berri horrek sorturiko segurtasun eza, ausardia eta eskuzabaltasuna ageri dira marrazkietan.

Amatasunak hankaz gora jartzen ditugure bizitzak zentzu guztietan eta meteoritoaren metaforak ezin hobeto deskribatzen du aldaketa hori. Liburuaren izenburuan agertzen den meteoritoaren metafora erabiltzen du ilustrazio askotan eta ilargi eta izarrek presentzia handia dute erakusketan.

Izar iheskor batek zeruan haur bat duela irudikatu du, planetaz eta satelitez inguratuta ageri da zuri beltzezko ilustrazioan. Amak umeari titia ematean sortzen

'EL METEORITO' ERAKUSKETA

NOIZ: irailak 25 / azaroak 13

NON: Gasteizko Zuloa liburu denda

duen zirkulu batek ere ilargia irudikatzen du eta harekin batera esaldi bat ageri da: "Ama izatea beti beldurra izatea da, baina baita indarra eta bizitzarekin konexioa eta maitasuna izatea ere. Ziztu bizian taupadak egiten dituen bihotza izatea da."

Amaiaen liburu eta erakusketa horrek amatasunaren irudizko ideia horretatik aldentzen gaitu eta benetako amatasunaren ikuspegia zabaltzen du, ama izateak dituen argi eta itzalak, beldur eta pozak, neke eta gogo bizia azaleratuz.

Gogoetatik eta bizitzaren askotariko eskarmentuetatik sortutako liburu erakusketara eraman nahi izan du Bartzelonan bizi den gasteiztarrek. Zuloa liburu dendak hartu du Arrazolaren esposizioa eta bertako hormak liburu ilustrazioez bete dira. ●



Hitz gezidunak

PERRETXIKO POZOITSUA ----- ALDE! KANPORA!	ERRUKITSU ----- BIZKAIKO HERRIA	SOLAS-GAIA, ESAMESA	DAN BLANCO 	ERORI ADITZAREN INFINITIBOA ----- HALABER	UBELDURA ----- ASKA	IBILGAILU BAT HERRES- TAN EROAN ----- KEZKATU
GARESTI ----- LISTU				PERTSO- NAIAREN ABIZENA ----- HEGAZTI MOTA		
	UTIKAN! ----- ALJERIAKO BIZTANLE			HURBIL ----- GARRAIABIDE ERREGULA- RRA	ORATZEA, HELTZEA ----- LAPURDIKO UDALERRIA	
EUSKARRIAK ----- KOILARA HANDI					XUMEA, XEHEA ----- EDARI NAHASKETA	
		NAHI BIZIA ----- GARAIAK				RADONAREN IKURRA ----- EUSKARA EZ DENA
DIRU ZAHA- RRA	BERTARATU ----- TXIZA			ZEMEN- TUZKO PIEZA HANDIA ----- LEHENGUSUA		SARBIDEAK
					UKUILUA ----- OKARAN	
ERBIOAREN IKURRA ----- ÈPE LARRI		LAPURTERAZ, DINAT ----- PERTSO- NAIAREN IZENA			DAUKAT ----- ERRUSIAKO IBAIA	
			LEIHOETAKO ITXITURA ----- GAR, LAMA			ENERGIA ----- MONGOLIAKO DOMEINUA
NAHASTU ----- NAFARROAKO HERRIA				ARRISKU SEINALEA ----- BAT ERROMA- TARRA		
					BAT-BATEAN	

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

		4	2	8		1	9	3
7			9		1	4		
1	8				5	7	2	
5			3	4				7
		3				6		1
9				1		2	3	5
		1				3	7	
2			1				6	4
3	9					8		2

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Mingots, min.
2. Gauean egiten den otordu.
3. Eliz deiak.
4. Irakasleen euskara sendotzeko programa.
5. Elementu kimiko.

EBAZPENAK

1. SAMIN
2. AFARI
3. MANAK
4. IRALE
5. NIKEL

2	1	8	4	7	6	9	5	3
4	6	1	9	8	1	8	1	3
4	9	6	4	3	5	7	9	2
6	9	4	7	8	1	6	2	3
8	2	3	7	5	9	6	4	1
5	1	6	3	4	2	9	8	7
1	8	9	4	3	5	7	2	6
7	3	2	6	1	4	5	8	9
6	5	4	2	8	7	1	9	3

K	N	V	Z	N	I	V	U	K	U	R	U	Z
A	M	A	V	T	V	I	S	V	H	V	N	Z
E	T	A	E	R	S	I	S	I	S	I	K	R
T	D	T	A	N	A	U	D	A	R	E	R	E
A	T	O	K	O	K	E	R	L	R	E	G	O
E	A	K	E	O	T	B	N	A	O	J	O	V
N	R	A	V	K	I	R	I	L	I	T	V	Z
A	U	L	A	K	U	V	A	K	U	L	M	A
I	D	O	R	A	O	H	T	U	U	T	J	U
O	E	T	O	O			U	R	V	K		
T	A	B	O	O			A	R	E	F		
A	U	E					E		K			

Iraia Lekue

ZORU PELBIKOAN ADITUA



ORBAINAK SAMURTZEN

"Duela zazpi urte eta erdi izan nintzen ama. Zorionez, gauzak aldatzen joan dira orduz geroztik: garai hartan hasi ziren edoskitzearen eta erdiondoaren babeserako hazkuntza taldeak sustatzen, zoru pelbikoaren jarraipena egiten profesional gutxi ginen eta ospitaleetan erditzeko baliabideak murriztak ziren. Erditze traumatikoa izan zen gurea eta erdiondoa bereziki mingarria. Bakarrik sentitu nintzen eta medikuntza psikiatrikoa behar izan nuen osatu ahal izateko. Esango nuke gaur egun erdiondoan emakumeekin lan egiteak nik bizitako esperientzia mingarriagatik asetzen nauela hainbertze. Hein batean, nik pairatutako kalbarioa emakume gehiagok bizitu behar ez dezaten saiatzen naiz".

"Sistemak oso gutxi inbertitu du emakumearen ongizatean"

Obstetrizian eta zoru pelbikoan aditua da Iraia Lekue (Bilbo, 1981) fisioterapeuta. Amatasun esperientzia errekupeazio fisikoan hasten dela defendatuz, emakumeak haurdunaldian eta erdiondoan laguntzea du ogibide. 1999az geroztik Bartzelona du bizitoki.

 **SAIOA BALEZTENA**  **JORDI BORRÁS**

Noiz eta nola hasi zinen zoru pelbikoaren ezagutza murgiltzen?

2002an burutu nituen fisioterapia ikasketak. Garai hartan zoru pelbikoaren ikasgairik ez zegoen. Nirekin Frantzian Erasmusa egin zuen lagun batek aipatu zidan bertan, erditu ondoren, emakume guztiek fisioterapeutarenera jotzen zutela, zoru pelbikoa birgaitzeko. Gerora, Bartzelonan prestakuntza bat antolatu zuten, erreferenteak ziren bi fisioterapeuta frantsesen eskutik, eta parte hartu genuen ikaskide hark eta biok. Halaxe maitemindu nintzen zoru pelbikoarekin eta, orduz geroztik, ez naiz gelditu. Urtebete beranduago graduondoa egin nuen eta posible duan guztietan ikasten jarraitzen dut.

Zergatik da garrantzitsua fisioterapia zoru pelbikoaren arazoak konpontzeko?

Erditu ondorengo muskulatura abdominala eta zoru pelbikoaren osasunaren inguruko balorazioa egiten dugulako. Horri esker, disfuntzioen diagnostikoa egiten dugu eta hortik

aurrera tratamendua proposatzen dugu ariketa fisikoaren eta kontsultako saioen bitartez.

Oker ez banago, hamar emakumetik lauk dituzte inkontinentzia arazoak erditu ondotik, eta gehiengoak ez ditu arazoak eta ondorioak ezagutzen.

Erditu ondoren txiza galerak edukitzea normalizatu duen gizartean bizi gara. Emakumeek erdiondoan duten ohiko disfuntzioa da, baina ez da inolaz ere normala. Zorionez, gero eta informazio gehiago dago eta emakumeek interes handiagoa dute euren ongizatean, erabat osatzeari uko egin gabe.

Zenbateraino dira tabu, oraindik ere, zoru pelbikoarekin lotuta gaiak?

Sistemak oso gutxi inbertitu du emakumearen ongizatean eta zoru pelbikoarekin lotutako arazoak egon arren ez da horiei irtenbidea bilatzeko interesik egon. Emakume asko isilaraziak izan dira hamarkada askotan,

"Erditu ondoren txiza galerak edukitzea normalizatu duen gizartean bizi gara. Emakumeek erdiondoan duten ohiko disfuntzioa da, baina ez da inolaz ere normala".



baina zorionez gaur egun ahalduntzea bizi dugu; gure osasunaren kontzientzia handitu da eta emakumeek babes eta baliabide gehiago aldarrikatzen ditugu.

Zein da zure ustez zoru pelbikoaren inguruan dagoen gabeziarik larriena?

Osasungintza publikoak ez ditu zoru pelbikoarekin lotutako tratamenduak bermatzen eta emakumeak bere poltsikotik ordaindu behar izaten ditu. Era berean, oraindik ere, halako arazoak zuzentzeko tabua nagusi da gaur egun. Azkenik, zoru pelbikoaren espezialitatea dagoenik ere ez dakien jendea badago: gure paziente gehienak gomendatuta etortzen dira...

Zenbateraino hobetu da egoera?

Azkenaldian emakumearen ongizatearen garrantziak tokia hartu du, zoru pelbikoaren egoera muskularraren eta osasunaren inguruko informazio gehiago dago. Argi dago bide luzea gelditzen dela oraindik, baina baikorra naiz eta uste dut gero eta kontzientzia handiagoa dagoela.

Zer deritzozu osasungintza publikoak haurdunaldian, erditzean eta erdiondoan egiten duen

jarraipenaz?

Haurdunaldian jarraipen egokia egiten dela iruditzen zait. Ospitaleetako erditzeetan gehiegizko esku-hartzea dago. Horretan ere emakumearen erabakitzeko eskubidea bigarren mailara zokoratzen da. Baina nire ustez osasungintza publikoaren gabeziarik larriena erdiondoan dago: sasoi horretan ohikoak diren arazoei modu egokian aurre egiteko babsa eta baliabideak falta dira.

Hutsune horrek zer eragiten du?

Erditu ondotik emakumeak aldaketa fisiko, hormonal eta metaboliko garrantzitsua bizitzen du. Prozesu horretan babestuta sentitzea ezinbestekoa da orokorrean eta baita zoru pelbikoari dagokionez ere. Zoritzarrez, osasungintza publikoak zoru pelbikoaren jarraipenik egiten ez duenez, profesional pribatuetara jo behar izaten dute emakume askok eta, beti bezala, baliabide gutxien dituzten emakumeek, denborarekin okertuko den disfuntzio horrekin bizi bertzerik ezin dute.

Zein dira kontsultan ikusten dituzun ohiko arazoak?

Jakina da Espainian erditzeetan gehiegizko esku-hartzea dagoela, episiotomia eta zesareen bitartez. Orbain horiek muskulaturaren funtzionaltasuna ahuldu eta aldatzen dute. Beraz, erremina, azkura, inkontinentzia eta harreman sexualtan mina sentitzen duten emakumeekin lana egiten dut egunero.

Badago uste duenik zesareaz erditzeak zoru pelbikoan eraginik ez duela. Hala da?

Jendeak kontrakoa uste duen arren, zesareaz erditzeak ez du zoru pelbikoaren jarraipena salbuesten. Zesareak eragindako sabel abdominal baxuko orbainak barruko itsaspenak eragiten ditu sarri. Eta horrek eragina du, ez bakarrik muskulu abdominaletan, baita zoru pelbikoan ere. Bestalde, emakume askok zoru pelbikoaren tentsioaren gorakada izaten dute, nerbio-sistemak eragindako erreakziobideagatik. Eta, horretaz aparte, zesareen artean asko urgentzia-koak izaten dira, emakumeak erditze lana egin ondotik. Beraz, zoru pelbikoak, modu batean edo bestean, jarraipena behar izaten du baita zesarea bidez erditu duten emakumeetan ere. ●



Africa Banbaataa: “Joselu Anaiak eta bere entornoak autokritika egin behar dute”



Africa Bambaataa gerra-korrespontsala, Fever diskotekan.

“Joselu Anaiak, Egan, Drindots, Ake-larre... Erromeri-giroan dantzarazi gaituzten talde guztiek barkamena eskatu beharko lukete sortutako minagatik. Pandemia honek triskantza eragin badu, izan da urteotan Euskal Herriko plazetan bildu duten jendetzagatik”, adierazi du Africa Bambaataa Djak, Bilboko Fever diskotekatik zuzenean. “Hau bezalako garitoetan ordea gauzak desberdinak dira, jendea

ez da hainbeste arrimatzen, besapeko izerdiak PH neutroa du, eta Gotzone Sagardui alderdikideak egoki adierazi duenez, jendea komunera joaten da egin beharrak egitera eta listo, metro eta erdiko tartea beti errespetatzen da... eta kontrol handiagoa dago, polizia maiz etortzen dira segurtasun-neurriak bete eta materiale guztia, komunean bertan, egokia ote den testatzera...”.


Bua, txo! Hori kantzatzarra!




@TirodeGraciah | Twitter

SAREAN ARRANTZATUA

Erreferente nagusiak
Txusmarraga Urretxun



KKinZonako fanzinea



Xiberoko Gaü Eskola | Facebook

Sagardoak distantzia ere
lausotzen du



ARGIA EGUTEGIA 2022

*Egunero efemeride bat.
Burujabe garez, historia guk ere idatz dezagun.*



10€
+4€
bidalketa
gastuak



Era guztietako gertaerak topatuko dituzu orriotan, egunez egun. Asko hedabide handienek beren errepaso historikoetatik kanpo uzten dituztenak dira. Injustizia isilaraziak eta horien aurkako altxamenduak, langile borroka azpimarragarriak, ekintzaile sozialen ekimen anitz edo Euskal Herriko panorama politikoa astindu zuten albisteak.

AURRE-SALMENTA:
AZOKA.ARGIA.EUS • 943 37 15 45

LARRUN #200



2022 Ilargia eta landareak

Jakoba Errekondo eta
Antton Olariaga

Baratzea
Fruitu baratzea
Lore baratzea
Basoa



14€

+ 4€
bidalketa
gastuak

 ARGIA BIZI BARATZEA

argia.eus/azoka 943 37 15 45